

EUSKAL GAIAK

# Bertsolaritzaren historia

Xabier Amuriza



**EUSKAL GAIAK**

# Bertsolaritzaren historia

**Xabier Amuriza**





EUSKAL GAIAK

Bertsolaritzaren

historia

Xabier Amuriza

Izenburua: Bertsolaritzaren historia

Egilea: Xabier Amuriza

© ORAIN S.A.

Bilduma: Euskal gaiak

Koordinatzailea: Iñaki Urdanibia

Azala: Borja Goitia

Fotokonposaketa: Imanol Tapia

Inprenta koord.: Arteder

ISBN: 84-89077-52-5

D.L.: SS-1127/96

Bertsolaritzaren Historia labur hau lau zatitan banatuko dut, tradizioaren eremu ezberdinak argiago gera daitezen. Lehenengoan Iparraldea hartuko dut, non Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa dauzkagun. Iparraldea Hegoaldea baino askoz aurre-rago garatu zen literaturan. Baita bertsogintzan ere. Bigarrenean Nafarroa Garaia edo Hego Nafarroa hartzen dut. Topiko bihurtu da herrialde honek bertsolaritzan ez duela tradizio indartsurik garatu esatea azken aldi honetara arte. Hala ere, ikerkuntz falta handia dagoela susmatzen dut, Nafarroa Garaia kantagintzan eta bertso anonimoetan aberatsa baita. Has gaitezen, beraz, aparte kontsideratzen eta ez Gipuzkoaren luzagarri gisa. Ondoren Gipuzkoa etorriko da. Hemen bertsolaritza indartsu sustraitu zen, garai batetik honantz jeneroaren bizigune nagusi bilakaturik. Azkenik Bizkaia edo bizkaieraren eremua. Hemen Ipar eta Gipuzkoar erako bertsolaritza nahiko berandu indartu zen, aurretik beste tradizio mota bat egon zelarik. Azkenik Araban egon daitekeen apurra Bizkaia-aren inguruan kokatuko dugu, euskalkia ere bizkaiera baitu.

Terminologian eta eremuen definizioan, zabal jokatuko dut, uste baitut horixe dela jokaerarik zentzuzkoena. Ez naiz sartuko *bertsolari*, *koblakari*, *koplari* eta gisako terminoak bereizten. Ezta bertsogintza bat-batekoa eta jarria bereizten ere. Alde batetik kasu askotan, batez ere denboran atzerantz jorik, oso zaila da jakitea bertso sorta ederren jabeak -izendunak nahiz izengabeak- bat-batean kantatzen zuten ala ez. Esaterako, *Iturengo Harotza*-ren egileak kantatzen ote zuten bat-batean? Izenei begiraturik,



XVII. eta XVIII. mendeko Iparraldeko hainbat bertso-gilek kantatzen ote zuen bat-batean? Bilintzek berak zenbat bertso inprobisatu zuen jendaurrean?

Hauek honela, bertso-larritza zabal harturik, bertso-gintza oro jotzen dut barruko, beti ere bertso-gintza herritarra edo ahozko literaturaren eremuan dabilena. Hemen ere marra bereizle zehatzik ez dago, baina handi-handika argi dago Etxepareren bertsoak herriaren belarritik hurbil daudela eta Lizardirenak, ordea, herri hizkuntzatik nahiko urrun.

## ANONIMOAK

# IPARRALDEA

Iparraldean 190 urte baino gehiago daramatzuten gure herria ez, baina besterik ez gurea ezagutzeko beste bide batzuk ere aurkitu ditugu. Horien artean 1991 urtean Orosko herria-  
rik aipatu zuten, lurrikorrek, historiari eta abar buruzkoak. 74  
dia berria luzean irratik. Idazkaria gure Herriaren  
Historia. Igaraldi, Euzkoaren eta Zuberoako herria eta  
kanadak. I. Anonimoak.

Bidua gurean 190 urte baino gehiago daramatzuten gure herria ez, baina besterik ez gurea ezagutzeko beste bide batzuk ere aurkitu ditugu. Horien artean 1991 urtean Orosko herria-  
rik aipatu zuten, lurrikorrek, historiari eta abar buruzkoak. 74  
dia berria luzean irratik. Idazkaria gure Herriaren  
Historia. Igaraldi, Euzkoaren eta Zuberoako herria eta  
kanadak. I. Anonimoak.



## I

### ANONIMOAK

Iparraldean hain aspalditik eta hain ugari dator bertso-gintza, ezen bertso eta kanta anonimo hutsez Patri Urkizuk 900 orrialdeko bilduma hornitu zuen 1991. urtean. Orrialde horietatik doinu zerrenda, aurkibide, hiztegi eta abar kendurik, 774 dira bertso hutsez beteak. Liburuaren izena: **Bertsolaritzaren Historia. Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I. Anonimoak.**

Bilduma horretan 500 titulutik gora dago. Ez dira, beraz, halako txinpart esporadikoak, altxor mardul bat baizik. Titulu horietan honako sailkapenak ikusten ditut: *Jendetasunezkoak, Euskal Herriaren alde, politika, elizarakoak, filosofia, alegiak, haur eta sebakakoak, ostatukoak, irri eta ziri, ibauteri eta astolasterretakoak, xikitoak, eskekoak, partida eta Amerikakoak, ofizioak, pilotarienak, dantzarienak, itsasokoak, hiltze, presondegia eta beste istorio, gerrakoak, amodiozkoak.* Amodiozkoetan beste hogeia zpisail datoz: *leihopeko serenatak, goizalbakoak, bakardadezkoak, iturriondokoak, soldadutzara doazenak, mutilen despedidakoak, alegoriazkoak, dialektikoak, laudoriozkoak, pedagogikoak, pena kontatzaileak, esperantza gabeak, ezkontza eske, murmurioen aurka, askatasunaz, fidelitateaz, desinteresaz, esperantzaz, irrigarriak, kronikalariak.*

Honek guztiak antz bat eman dezake, Iparraldeko bertso-gintza anonimoaren ugaritasunaz eta barietateaz. Hautatzea zaila

bada ere, batzuk emango ditut eta denak laburrak, espazio txiki-  
kian ahalik mostrarik ugariena eskaintzeko.

## URRUNDU NINTZAN HERRITIK

1)

Urrun urrundu nintzan Eskual Herritik  
lagun on eta etzekoen artetik.  
Hainitz bazter eder kurritua gatik  
nihun ez dut ikhusi hori bezain pollitik.  
Andre xarmant bat bildurik hemen nago  
heldu gira etzekuen ikhusteko.

Oi, maitia, zato  
Eskual Herriraino  
etxeko atean irriz amatto  
gure beha dago.

2)

Zato, ihus dezagun Eskual Herria  
mendi zelhaitetan goxoki jarria.  
Jende ona eta xarmagarria  
eginen daukute han ongi ethorria.  
Laphurdi, Baxenabar eta Zibero  
handitugu adixkide onak oro.

Oi, maitia, zato...

3)

Haur gaixto bat nintzen, deabru baten pare  
eman dut etxean phena eta dolore.  
Bainan maite ninduen amak halere,  
zato, maithatuko zaitu zu ere.  
Oiloa eltzian egosirik dago  
arno xahar ere bada edateko.

Oi, maitia, zato...

(Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I. Anonimo-  
ak. Patri Urkizu).



## BAZKO ETA SALBATORE

1)

Bazko eta Salbatore  
hurbilago Mendekoste  
eta ni gaixoa triste  
xuti ere ezpeinaite!

2)

Franko gazte nintzalarik  
eritasun bat sarthurik  
gau sobera beilaturik  
badut ondorio onik.

3)

Hogei eta lau urthetan  
eri ni ohe batetan  
ene lagunak plazetan  
eta ni gaixua penetan!

4)

Mendigarai mirikuia  
ene kontsolatzailea  
luza zadazu bizia  
pena da hola hiltzea.

5)

Ni hiltzen baniz huntarik  
ez egin, othoi, nigarrik  
ez jauntzi oihal beltzik  
ezpeitut sino beharrik.

(Aurreko bera. 107. or.).

Sorta honek bere sinplean eta lakonikoan tragediari biluztasun zirragarria damaio, hil ondoko bizien egizko mina ere sinotzat, sineskeritzat, alperreko maniatzat jotzeraino.

## ASTO GUZIAK

1)

Asto guziak eztira goizetan ogean  
Purrutuneko mutila jeikia denean.  
Karrika guzia badauka marrumaz aidean  
Amikuzen sortua da Maiatzaren erdian.

(Euskalerrriaren Yakintza, IV. 31. or. R. M. de Azkue).

Bai era aldi berean zehiarra eta indartsua, mutil edo morroi bat -kasu honetan Purrutune izeneko baserrikoa- astoa zela adierazteko. Oraindik gogoan daukat nolako takada eragin zidan, duela urte mordoia Azkueren liburuan ikusi nuenean.

## NI SORTZEKO DENBORETAN

1)

Ni sortzeko denboretan  
gaiza franko bazterretan.  
Atheratu nintzalarik mündülako portaletan  
miseria jin zereitan zaldi-zela bridetan.

2)


Aita nian Ziberuko  
lekhü hun eta fineko.  
Behin deliberatü ziin ni aphez egiteko  
mündüan hartu ezpalu münduz mündu igorteko.

3)

Mündü kurrirtzan nabila  
miseria enekila.  
Frantzia üngüraturik heltu niz Amerikala  
ustez aberasten nintzan huna heltü ta berhala.

(Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I. Anonimoak. Patri Urkizu. 351. or.).





## MENDI GAINEAN BI PAGO

1)

Mendi gainean bi pago  
zeru pollita gorago.  
Ene etxola xuri gorria han ederrik dago  
zola oro artho-zango  
bipher gorriak dilingo  
herri guzian, mundu guzian, nor da urusago?

2)

Ardiak ditut ehunka  
hamabi ahuntz jauzika.  
Sei betroin azkar, seiak esnedun, lapinez hameka  
ogiz bethea dut arka  
sotoak arno badauka  
ene bihotzak Jainko Jaunari eskerrak diozka.

3)

Karrikan bada gorderik  
izar urhe bat ederrik  
balio ditu ene gostuko bertze lau segurik.  
Nahi balu karrikatik  
hunat bildu ene gatik  
orduana hemen ez lizateke desuseren eskasik.

(Aurreko bera. 539. or.).

## GAZTE NAIZ ETA LORIOS

1)

Gazte naiz eta lorios, izpiritua kurios.

Batez agrados, besteaz jelos, mutil gaztekin gau oroz mutil gaztekin gau oroz eta nundik naiteke maluros.

2)

Aita eta ama etzaten dira, biak ganbera berian ez dira nitaz ainitz oroitzen berak ontsa direnian jeloskeriarik ez izaiteko ni maiteñoaren aldean.

3)

Ate xokoan makila eta leiho azpian zurubi.

Ene maitia handik sartzen da, segetuan prudentki segetuan prudentki eta, amaik oraino ez daki!

(Aurreko bera. 539. or.)

Bai sorta jostaria eta ironikoa, gaztetasunaren euforia guztia dariona. Azkenik ezin dut utzi ia gogokoen dudan sorta bat eman gabe. Neska eder bat neskame doa jaun baten etxera, beste asko bezala. Nagusia haren indefentsioaz baliatzen da, baina ez bide du dena ondo kalkulatu eta azkenean neska haurdun gertzen da. Orduan nagusiak amagai gaztea "saldu" edo beste norabait urrundu nahi du. Baina herriko mutil gazteek berria jakin dute eta bertsoak atera dituzte, jaun abusatzailea salatuz. Historia gordin eta triste hau ez litzateke zoritxarrez hain orijinala, kontakeragatik ez balitz. Begira nola azaltzen den guztia alegoria hutsean, egizko pertsonaiak eta gertaerak behin ere zuzenki aipatu gabe.



## URZO XURI POLLIT BAT

1)

Urzo xuri pollit bat  
bazen herri huntan  
aita-amak utzirik  
joan zen airetan.  
Paregabia baitzen  
bere lagunetan  
ihiztariak zuen  
atzeman saretan.

2)

Urzo xuri pollita  
kaiolan eritu  
eta ihiztaria  
tristezia sartu.  
Gaitza berri zueno  
nahi zuen saldu  
erostun tontuen bat  
harrapatu balu.

3)

Aita-ama gaixuek  
ez bide zakiten  
ihiztari zaharrak  
zer zuen egiten.  
Urzuak zituela  
kaiolara biltzen  
eta han inozentez  
ongi baliatzen.

4)

Ihiztari zaharra  
gaizki usatua  
etzautzu baliatu  
aurtengo tratua.  
Gogoz saltzen zinuen  
urzo kolpatua  
izan balitz mundua  
arras lokartua.

5)

Bertsuak eman tugu  
gauaren erdian  
hamar mutiko gaztek  
umore onian.  
Ez dugu ez emanen  
bakerik herrian  
urzua sorlekura  
ekarri artian.

(Bertsotan 1789-1936. 23. or. Joanito Dorronsoro).

Bigarren bertsoko “gaitza berri zueno” (zuen bitartean) horrek haurdunaldiko lehen garaia esan nahi du, oraindik gaitza “berri” edo kanporantz igartzen ez dena. Benetan sorta aparta, alegoriaren klabeak ezagutuz gero. Azken bertsoan adierazten dena ere esanguratsua da oso. Umore oneko mutiko gazte haiek, gauaren ausardia ilunean, zenbat aldiz ez ote zituzten bertso hauek kantatu “ihiztari zahar gaizki usatuaren” etxe inguruan?

## II

### IZENAK

#### BERNART ETXEPARE (1545)

Iparraldeko eta Euskal Herri osoko bertso-gintza norengandik hasi behar den argi dago. Bernat Etxepare. Hizkera herri-tarra eta bizia du oso. Haren poemak, landuak eta kultoak izan arren, herriaren belarritik oso hurbil daude. Euskarazko lehen idazle honen berri handirik ez dago. Ustez Sarrasketan jaioa, Eiheralarreko erretore eta Donibane-Garaziko bikario izan zen. Bere poema batean agerienez, preso ere egona zen arrazoi politikoengatik. 1545. urtean argitaratu zen Bordelen bere *Linguae Vasconum Primitiae*, euskarazko lehen liburua. Berak horren konzientzia osoa dauka eta lehen euskal idazlea izatearen harrotasun handia erakusten du. Bere hamabost titulutatik hamar amodiozkoak dira, bi erlijiozkoak, bat autobiografikoa eta bi euskararen gorai-puzkoak. Hauek biak oso ezagunak eta kantatuak direlarik, *Amorez errekeritzia* izeneko hogeita lau ahapaldi laburretatik baztuk emango ditut.

1)  
Benedika fortuna!  
Ala enkontru hona!  
Orai begietan dizit  
desiratzen nuiena.

2)  
Ene maite maitena  
egidazu zuzena.  
Joan duzuna ekhardazu  
ezpa eman ordaina.

9)  
Ni enuzu jakintsu  
klarki erran ezazu  
ehork untsa adi zitzan  
nahi balin baduzu.

10)  
Gizonak duien maitena  
bai etare hobena  
bihotzeko pausua du  
eta bere lo hunu.

11)  
Orain lorik ezin daidit  
bihotzian ez pausurik  
haiek biak galdu ditut  
amoria, nik zugatik.

24)  
Albanerra egia  
nik dut pena handia.  
Sekretuki mintza giten  
biok, othoi, maitia.

(Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. II. 1545-1900.  
27. or. Patri Urkizu).

## JOANES ETXEBERRI (1580-?)

Lapurdiko Ziburutar hau hamazazpigarren mendeko euskal idazle garrantzitsuenetakoa da, bere euskara aberats eta indartsuz. 1627. urtean *Manual debozionala* (...) *Eskarazko bersutan egina* argitaratu zuen Bordelen. 1631n *Noelak eta berze kanta espiritual berriak* eta 1636an *Elizara erabiltzeko liburua*. Joanes Etxeberriren liburuak herriaren eskuan oso maiteak izan ziren. Hona *Manual debozionala*-tik pasartetxo bat, Jaun Migel Oiharart Bikario eta Kalonjeari eskainia, euskaldun itsasgizonentzako otoitzen atarian:



LINGVAE VASCONVM PRIM-  
tiz per Dominum Bernardum Dechepare  
Rectorem sancti michælis veteris.



1545ean Bordelen euskaraz argitaratutako lehen liburuaren azala, Bernart Etxepare idazlearena.

Eskaldunen ozpea da lur guztira hedatzen  
eta itsasturi ontzat munduak tu laudatzen.  
Ezen hain behera eztu Ozeanak ondarra  
nondik athera berunaz eztezaten legarra.  
Eta eztu urbazterrik erresakak hezitzen  
norat bidea xuxenkin ezbaitute aurkhitzen.  
Norte eta Hegoako hartak dire lekhuko  
pribilejio tuztenak sobera ere froguko.  
Hekin komarka bateko zu zarade artzaina  
eta mende hunetako Jaunak utzi ordaina.  
Hekin ona aitzinatzen duzu ahal guztiaz  
hala doktrinazko hitzaz nola prestu biziaz.  
Asko aldiz zure ahotik entzun dut hitz zuhurra  
othoitz egin behar dela premien eredura.  
Hemen bada formatu tut othoitz batzuk ureko  
behar aldi orduetan debotki errateko.  
Zure jendea jujaturik daitekela zerbitza  
baldin eta badezazu zeure itzalez geriza.  
Hartarakotz presentatzen darozkitzut humilki  
zeure gomendio onean har etzatzu arraiki.  
Prestutasun ezagunak hauts dezan inbidia  
eta ahoko hitz batek ixil hitzkin mihia.

(Aurreko bera. 53. or.)

## IOAN CLAVERIA (1636)

Joanes Etxeberrik bere garaikideengandik goresmen handiak jaso zituen. Hona adibidetzat Ioan Claveria apezak eskainitako laudoriozko koplak famatuak eta esanguratsuak:

1)  
Burlatzen naiz Garibaiez  
bai halaber Etchabez  
zeinak mintzatu baitire  
erdaraz eskaldunez.

2)  
Ezen zirenaz geroztik  
eskaldunak hek biak  
eskaraz behar zituzten  
egin bere historiak.

3)  
Eskaraz egin dituzu,  
Etcheberri, zeure obrak  
ohoratu nahiz zeure  
ahalaz herritarrak.

4)  
Zer errefau eder baita  
hizkuntza arrotzetan  
hura aditzera ematen  
daroezu beretan.

5)  
Esker bada eta aithor  
duzula berezia  
zeren ohoratu duzun  
herritarren mihia

Aurreko bera. 46. or.)

Esteban Garibai historilaria eta Baltasar Etxabe pintore eta abokatu Oikiarra garai hartako erdal idazle garrantzitsuak izan ziren.

## SALVAT MONHO (1749-1821)

Euskal idazle eta erlijioso behenafarra, Isturitzekoa. Bertso erlijiosoak eta garaiko Iraultza Frantsesaren inguruko gertakizun politikoak kantatu zituen. Bertso jartzaile eta idazle ugaria izan zen. Hona *San Kasteteneko andregaiak Filipeneko oilarrari* sortatxoa:

1)  
Oilar kruel, oilar bortitz  
o oilar fanfarruna!  
Gure oiloak bi aldiz  
alargundu tuana.  
Goregi kantatzen baduk  
ereman bitoria  
promes dauat, galduko duk  
laster hire bizia.

2)  
Bakea egin deneko  
ez bahaiz eskolatzen  
ez baituk hauzotako  
oilarrak menaiatzen,  
Anglaterran hautaturik  
erakarriko diat,  
gostatzen dena gostarik  
oilar mendekati bat.

3)

Hire kolpe itsusiak  
jakin zituztenean  
herriko oilar guziak  
bildu behar zituan  
bere lagunen odolaz  
arrazoin galdatzeko  
hire bizi kriminelaz  
heien mendekatzeko.

4)

Gure oilar defuntuen  
kukuruko eztiak  
jaiki-arazten zituen  
bere mugan sehiak.  
Ez dira asko nigarrak  
oilar hain maiteentzat  
hek bezalako oilarrak  
ez ziren eltzekotzat.

(Aurreko bera. 209. or.)

Zortzi-zazpi neurriko ahapaldian, ohar nola errimatzen den:  
1-3, 2-4, 5-7, 6-8.

## BEÑAT MARDO (1757)

Koblakari zuberotar hau Barkoxekoa zen. Xahoren ustez, honen galdutako bertsoekin hogeit bat liburu osa zitezkeen. Geratzen direnetan, Patri Urkizuk zortzi sorta dakartza. Ospe handiko bertsolaria zen eta berak ere bazekien ez zela edonor. *Beñat Mardoren khantoria* izeneko sortan, bere aurka bertsoak ondu zituen bati diotsa: “Eztakika ni nizala bürüzagi hartako?”.

Bertsotan lehena esan nahi du. Hona *Bestaliarrak* gupidagabeki hozkaria:

1)

Etxebarne, Etxegoihen, Elixalt eta Allande  
Barkoxera bestaliar laorak khümit dirade.  
Heltzian plazer egiten eta juitin haboroxe.

2)

Bestaliarrak nahi tinak jaon her adreza bite  
khümitia bezain laister laorak jaoziz han dirade.  
Heltzian plazer egiten eta juitin haboroxe.



3)

Lao gizun eta lao zamari, hori zortzi aho dirade.  
Maiatzian sabaietan belhar güti denian  
arrathüak paseiuko aizina frango ordian.

4)

Aho aoher hen jitian nur da ez lotsatzen?  
Eta haien phartitzian nur ez alageratzen?  
Heltzian plazer egiten eta juitin haboroxe.

5)

Lao egun Barkoxen jaunak ditinak iragaiten  
entzün gabe merexiak segür ezta phartitzen.  
Haren kunpaina ederrak hori du merexitzen  
heltzian plazer egiten eta juitin haboroxe.

(Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. 185. or. Patri  
Urkizu).

## BALERE ARTXU-IDIART (1780)

Zuberoako Altzürükü herriko koblakari honek badu *Argi-azkorrian jinik* izeneko bertso sorta famatu bat, non maitaleen elkarrizketan agota izatearen famak zer eragozpen dakarren ageriden.

1) *Mutila*

Argi-azkorrian jinik ene arresekila  
bethi beha entzün nahiz nunbaitik zure botza.  
Ardiak nun ützi tüzü? Zerentako errada  
nigarrez ikusten deizüt zure begi ederra?

## 2) *Neska*

Ene aitaren ixilik jin nüzü zure gana  
bihotza erdiratürik, zihauri erraitera  
kanbiatu deitadala ardien alagia  
sekülakoz defendatü zurekin mintzatzia.

Agota denetz eta haren ezaugarriak (“bilho holli, larrü xuri eta begi ñabarra”, belarri bata handiago eta bestea biribila eta biloz inguratua) eztabaidatu ondoren, neskak amaitzen du:

## 8) *Neska*

Hori hala balin bada, haietarik etzira  
ezi zure beharriak alkar üdüri dira.  
Agot denak txipiago badü beharri bata  
aitari erranen diot biak bardin tüzüla.

## 9) *Mutila*

Agot denak büria apal eta dizü begia  
lürrian beti sartürik, gaizki eginak bezala.  
Izan banintz ni aberats zü ziradin bezala  
aitak eztzeizün erranen ni Agot bat nintzala.

(Bertsotan. 1789-1936. 64. or. Joanito Dorrnsoro).

## MARTIN LARRALDE “BORDAXURI” (1782-1821).

Hazparnetar hau, familiako gertaera tamalgarri baten ondorioz, galeretara kondenatu zuten eta hainbeste urte lan bortxatuetan egin ondoren, hartatik hil zen gaizoa. *Galerianoaren kantuak* izeneko sorta urragarri eta famatuan kontatzen du bere drama latza. Hona orain oso kantatua izan den *Andereño bat ikusi nuen boskotetik*:

1)

Andereño bat ikusi nuen igande goizño batez  
ixtant beretik agradatu haren begi ederrez.  
Nik ez dut uste baduela parerik ez-titasunez  
neure bihotza tristerik dago harekin egon beharrez.

2)

Ainitz maite baduzula fama hedatu zaitzuz  
egun guziz maite berri bat egiten omen duzuz.  
Horiek oro hola badira, nor fidaturen zaitzuz?  
Ganbiatu beharko zira ni nahi balin banuzuz.

(Aurreko bera. 661. or.)

## PIERRE TOPET “ETXAHUN” (1786-1862)

Zuberoako Barkoxe herriko Etxahunia baserritik goitizena datorkion Pierre Topet hau bertsoaritzako ez ezik euskal literatura guztiko pertsonaiarik harrigarrienetakoa da, harrigarriena ez esateagatik. Gazte zela, etxe pobre bateko neskatila batez maitemindu zen, baina etxekoek beste neska aberats batekin, Engrazirekin, ezkonarazi zuten, bestela baserriko primutza edo oinordekotza kenduko ziotela-eta. Hogeita bi urtekin ezkondu zen, baina ezin zuen Engrazirekin ondo konpondu. Emaztea zitala zen eta gainera beste maitale batekin nahasia. Etxahunen odol beroak ez zituen gauzak bigundu eta emazteak lortu zuen senarra preso bidaltzea.

Preso zegoela, emazte Engrazi lasai zebilen bere amorante Hegiapalekin. Etxahunek, askatzen zutenerako, erabakia hartua zuen. Bera emaztearen amorantea hilko zuen. Halaxe gau batez, bere zizpa eskuetan, bide bazterrean itxoin zion. Iritsi zenean, tiratu eta zerraldo utzi zuen. Baina Etxahunen zorigaitzerako, ez zen Hegiapal, Etxegoiena baserriko beste mutil gazte bat baizik. Hortik Etxahuni berriz espetze luzea eta latza etorri zitzaion.

Libre irtetean, etxera agertzerik ez zeukan eta erromes ibili zen Santiagora, Erromara eta abar. Zahartzaroa Santa Engrazi aldean iragan zuen, artzain, herriz herri kantari, eskean, haurrei dotrina irakasten, bertso truk han-hemen ematen ziotena janez. Eta azkenik, sukaldeko zizeiluan etzanik, bakar-bakarrik hil zen, Urta-rrilaren hamazazpiko goiz batez.

Bizitza lazgarri hau ez zen inora helduko, Etxahunek hain harrigarri adierazi eta kantatu ez balu. Bertso gehienak galdu egin ziren, haren ondorengoek Etxahunia baserrian zeuden haren paper guztiak erre baitzituzten. Hala ere, ez dira gutxi gelditu zaizkigunak, herriaren memoriak ahoz aho gordeak. Etxahunen estiloan indarra eta ironia nabarmentzen dira, hau askotan korrosiboa benetan. Apaiz abusatiei ere maiz jarki zitzaien eta hortik iritsi zitzaion istilu bat baino gehiago. Behin, Barkoxeko apaizei bertsoak atera zizkielako, Musde Tiraz izeneko beste batek konfesioa ukatu zion eta orduan Etxahunek berari atera zion bederatzi bertsoko sorta bildugarri bat. Hona batzuk:

1)

Muse Tiraz zük enaizü  
nahi üken kobesatü  
zeren dütüdan Barkoxeko  
apezen kantorik huntü.  
Haiez plañitu zirelakoz  
zihauk ükenen dütüzü.

6)

Musde Tirazen Jinkua  
tipinan handi kozina.  
Haren Ama Birjina aldiz  
oilaki salda gizena  
horien oro pusatzeko  
ardu eta likür huna.

4)

Omizen egon zinandin  
mila lüs ttipi batekin.  
Bena Eskiulan behar düzü  
zamaría ere hazi  
beste mila lüs herriari  
behar düzü emanerazi.

9)

Eskiulan Musde Tiraz  
Barkoxen Musde Zenmartzo.  
Hurak biak perfekt dirade  
bai, herri aizuentako  
bena Jinkuak lagun bitza  
haiek nik maita artino.

## JAN BATIXT OTXALDE (1814-1897)

Bidarraitar hau Iparraldeak eman duen bertsolari handienetakoa dugu. Joanito Dorronsorok Bertsotan (1789-1936) liburuan, 54. orrialdean, dakarren Oxobi idazlearen aipamenak dena esaten du: “Baigorritik Maulerat ez da bilkura aipagarririk Euskal Herrian Otxalde bertsolaria gabe. Orain duela mendetsu bat drixolari (farreragile) jaunena jaun zebilen”. Bertso jarrietan artista zen.

Famatuak dira *Otxalde eta Etxahun, Lurreko ene bizia, Iruñeko ferietan, Kantu berriak, Ezpeleta herrian, Zaldi zaharra, Xanxundegiko xakurra* eta abar izeneko sortak. Hona behin Sarako plazan kantatu omen zuen bederatzikoa:

Otxalde sortuz geroz da Bidarraitarra  
Hanitzek dakitena guarda zaharra.  
Oraino bizi baita ez du solas txarra  
indarrez ahul eta gorputzez meharra  
                    konkortu bizkarra  
                    eztitu sukarra  
                    galdurik indarra  
                    ez hala beharra  
deskantsuan darama bizi ondarra.

(Bertsotan (1789-1936), 54. or. Joanito Dorronsoro).

## JEAN BAPTISTE ELIZANBURU (1821-1891)

Napoleon II.ren agindupean kapitain gradua lortu, armada utzi eta Saran bake-epaile kargua ukan zuen saratar honekin bertsolaritzaren gailurrik gorenetakoa jotzen dugula esatea aski da Elizanbururen aurkezpentzat. *Iragan besta biharamunian sortaz Orixek bere Euskaldunak poeman, 150. orrialdean, dio: “Bertsu ok ez dira alperrik Euskalerrian egin diren ederrenak”*. Ikusten duzu goize-



an, Maria, Eskalduna, Solferinoko itsua, Gazte hiltzera doanaren kantua, Leben eta orai, Urrundik ikusten dut... Pieza hunkigarriak utzi zizkigun. Hona Ene maite Maria izeneko, azkena beti berdin errepikatuz:

1)  
Zein eder den arratsean  
izar arte garbia  
Iparretik agertzean  
marinelen argia!  
Bai handizki eder dago  
zeru zola handia...  
Zu miletan ederrago  
nere maite Maria!

2)  
Izarrak dire zeruko  
aingeruen begiak  
gizonen begiratzeko  
Jainkoak ezarriak.  
Zu bixtarat agertzean  
histuz beren argia  
sartzen dira ilunpean  
nere maite Maria.

3)  
Ez du hain laket izarrak  
egonleku berea  
primaderan ez erleak  
baratzeko lorea  
ez du hala argi-albak  
loriatzen xoria  
nola ni zu ikusteak  
ene maite Maria.

4)  
Maria, zure aldera  
hurbildu bezein sarri  
"maite zaitut" erratera  
ez naiteke atrebi:  
pilpira bat bihotzean  
beldur bainaiz abia  
"maite zaitut" erratean  
nere maite Maria.

(Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak II. Patri Urkizu. 451. or.)

## GRATIEN ADEMA "ZALDUBY" (1828-1907)

Senperetar euskal idazle honen lanik ezagunenak bertsoak dira. Artista zen horretan. Harenak dira *Zazpi Eskual Herriek*, *Betiri-Sants*, *Emakume xabar bat* eta abar. Hona *Xuriko* izeneko txakurraren hamabiko sorta ezin graziosoagotik batzuk:

1)

Mehetegiko xakurra  
zangoz, errainez makurra  
berga bat luze muturra  
larrutik hurbil hezurra  
urte guzia barurra  
zeren zen toki xuhurra.

2)

Amak ttikitik utzia  
esnerik gabe hazia  
tripa errainei josia  
uliek jaten hasia:  
Xurikok bere bizia  
hola derama guzia.

3)

Mahainpetik kokoriko  
begira dago Xuriko  
arto axaltto bat noizko  
ote zaio eroriko.  
Nausiak ematen daizko  
dohan hortik bi ostiko.

Zenbait miseriaren ondoren, kontatzen da nola herriko jaie-  
tan sukaldea inor gabe eta janez beterik harrapatu zuen eta txa-  
kur gaizoak dena jan eta hartatik hil.

12)

Bizian gosez egonik  
hiltzean sobera janik  
huna Xurikok erranik  
zer entzun dugun azkenik:  
“Gose dagonaren ganik  
ez daitekela lan onik”.

(Aurreko bera. 265. or.)

Jatsun sortua eta lanbidez zapatagina. Urterik gehienak Baigorri iragan zituen. Gaztetan Otxalderekin bertsoan buruzburu asko ibilia. Bertso sorta asko eta oso onak ondu zituen: *Artzaintsa mendian, Itsua eta sastrea, Mixelengo zubia, Libertadearen amodioa, Eskualdunak, Xinaurria eta xoria, Udazkena, Ikazkin mendian, Eztei ederrak, Eskualdun soldadoak* eta abar. Hona *Gerlako presunier bat* izeneko zortzikotik batzuk:

1)

Eskal herritto bat da nere sorlekua  
gerletara xortetik izan niz deitua.  
Prusiano etxaiez han preso hartua  
nahi duten lekura hetaz gidatua  
sei hilabete osoz heien menekua.

4)

Hainbertze sofriturik jina da orena  
ene herri maitera hurbiltzen naizena.  
Argi haste eder bat, igande eguna  
aspaldian Jaunari galdatzen nuena  
orai akabatzen da ene bihotz mina.

6)

Nere etxe maitean orduan sarturik  
aitaren besoetan eman naiz lehenik.  
Ez egin, ama ona, ez otoi nigarrik  
altxa zazu burua, ez da zorigaitzik  
zure seme bakarra hemen naiz bizirik.

(Aurreko bera. 620. or.)

## JOSE MENDIAGE (1845-?)

Ezpeletan edo Hazparnen sorturik, oso gaztetan Hegoamerikara joan zen eta Argentinan eta Txilen bizi izan zen. Urruntasunetik hain herrimin sakona eta batzutan tristeza bizi zuen Mendiagek hamaika bertso sorta ondu zuen estilo eder eta sarkorrez. Nork ez du entzun *Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi* hasten den sorta hain indartsua eta orijinalki egina? Hona bost ahapaldietatik azkena:

Kantuz ehorts nezaten, hiltzen naizenian  
kantuz ene lagunek harturik airian  
kantuz ariko dira ni lurrian sartzian  
kantu frango utziko diotet munduian  
kantu egin dezaten nitaz orhoitzian.

(Aurreko bera. 712. or.)

## PIERRE BORDAZARRE “ETXAHUN-IRURI” (1908-1979)

Zuberoako Iruriko pastoralgile eta bertsolari honek, bederatzirentzako pastoral idazteaz gainera, Euskal Herri osora zabaldu diren kantak ondu zituen. Hitzak ez ezik musika ere berak jarri ohi zuen. Nork ez du ezagun *Agur Xiberua* edo *Goizian argi bastian*, adibidez? Hona *Xiberoko neskatila eijerrak* sortako lehen biak:

1)

New-Yorkerik jin zaizku bizpa-lau mezajer  
gure Eskual Herrilat ikustera bazter  
jakitera bazenez zunbait nexka eijer  
kapable egiteko aurten “Miss Univers”.

2)

Ikerturik Lapurdi ta Baxe-Nabarre  
ez zaie agradatu hankorik nihure.  
Azkenekotz Xiberun bat hitzartü dire  
artzaintsa gaztetto bat izarraren pare.

(Etxahun-Iruri khantan. 77. or. Jakes Larrondo).

## MARTIN TREKU “MATTIN” (1916-1981)

Lapurdiko ahetzetar hau, batez ere Xalbadorrekin bikote eginez, gerra ondoko Iparraldearen ordezkariarik garrantzitsuenetakoa izan zen, Hegoaldera ere asko etortzen zelarik. Bertsolari zorrotza eta bizia, beti umoreko eta umorea jartzeko prest, oso maitatua eta deitua izan zen Euskal Herri osoan. Behin, traktorearekin-edo, istripu latza izan zuen. Nahiko kostata atera zen bizirik, heriotza oso hurbil ikusita. Norbaitek esan zion: “Zer, Mattin? Berriz ere abian?”. Eta Mattinek erantzun: “Bai. Joan nintzen beste mundura, baina San Pedrok erran zidan oraino tti-kiegia nintzela eta pixka bat handiago egin arte ez joateko”. Gorputzez txikia zelako, Lazkao Txikirekin bikote ezin graziosoagoa osatzen zuen. Behin, saio baten ondoren, bazihoazen kalean eta hanka bat moztua zeukana hauteman zuen aurrean, makuluekin zihoala. Mattinek Lazkao Txikiri esan zion: “Lazkao Txiki! Horrek hanka bat motza eta guk biak!”.

## FERNANDO AIRE “XALBADOR” (1920-1976)

Bere omenaldi egunean bihotzekoak jota hil zen urepeldar hau mende honetako Iparraldeko bertsolari handiena ez ezik, bertsolaritza guztiko gailurretarik bat da dudarik gabe. Euskal Herriko txapelik ez zuen sekula jantzi, baina behin txistuak jo zitzaizkion final hartan bera txapeldun izendatu bagenu, ni ere





Martin Treku "Mattin"



Fernando Aire "Xalbador"

epaile bainengoen bertan, ez genuen inolako injustizirik egingo. Xalbadorrek *Ezin bertzean, Odolaren mintzoa* eta *Herria gogoan* izeneko liburuetan hamaika bertso sorta eder utzi zigun, batzuk oso ezagun egin direnak.

Hala ere, ni haren bat-bateko bertsoek harritu naute gehien. Famatuak dira Xalbadorrek txapelketetan kantatutako hainbat bertso: Emazte zenduaren soinekoari, zergatik haurrak jaiotzean negar egiten duen, oheari, harri bat jaurti eta biharamonean besoa bendaturik agertu zen sorgin bati, txiste bat kontatzeko eskatu zitzaion hura, irriari eta abar. Hona hemen irriari bi bertso eskatu eta bota zuen bigarrena:

Irria beti ez ditaikela  
bihotz barnetikan egin  
balin gogorik ez bada ere  
hori egin daike berdin.  
Nahiz irria gezurra izan  
eta berari eman min  
bederen beti eginen dautzu  
bere inguruan atsegin.

Haurtxoak jaiotzean zergatik negar egiten duen gaian, honela bukatu zuen:

Haurtxo txikiak sortu deneko  
heltzen dio nigarrari  
bera pozetan balin bada ere  
lanbide horri da ari.  
Zeren Jainkoak errana baitu  
bere jaiotzan haurrari  
gure mundu hau tristea dela  
benetako nigargarri.

Txistuak jo zizkioten hartan, bospasei minutu luzez entzuleen erreakzio lotsagarri hura zutik eta ahal zuen tokira be-

giratuz jasan ondoren, bertso hauxe kantatzeko kemena izan zuen:

Anai-arrebak ez otoi pentsa  
ene gostura nagonik  
poz gehiago izango nuen  
albotik beha egonik.  
Zuek ez bazerate kontentu  
errua ez daukat, ez, nik  
txistuak jo dituzute bainan  
maite zaituztet orainik.

Atal hau amaitzeko, mende honetan Iparraldean nahiko atzerantz egin zuen bertsolaritzan aipatzekoak dira Senpereko *Matxin* Irabola, Ximon Ibarra "*Zubikoa*", Felix Iriarte "*Bersinanto*", Johanes Harriet, Panpale eta abar. Bizi direnak ez ditut liburu honetan sartzen.

# NAFARROA GARAIA

Nafarroa Garaiak seguruenik baluke bilduma mardul bat osatzeko entitatea, baina nik ez dut ezagutzen eta lan txiki honen mugetarako helburu handiegia litzateke. Norbaitek egingo balu, eskertzekoa genuke. Anonimoetan hain emaitza mardula ageri duen lurraldeak uste den edo ezagutzen den baino askoz gehiago eduki behar du.



## I

### ANONIMOAK

#### AMERIKATIK

1)

Amerikatik buelta eginda  
honuntzean Burdeoson  
hango fondetan eperrengatik  
propina ederrik omen zen.  
Handik itxera etorri eta  
dirurik etzen agertzen  
yango bazuen, aizkora hartuta  
laster sasira yohan zen.

2)

Belaunak pisu, ertzeak zimur  
begietako tristura  
zer deabrutako yohan zinaden  
goiko mendian kaskura?  
Osasunaren konserbatzeko  
gorputzarentzat freskura  
bezter guziak iretsi eta  
liberal hoiien eskura!

(Euskalerriaren Yakintza IV. 24. or. R. M. Azkue).

Bertso dotore hauek sorta luzeago baten zati diren antz guztia daukate. Ameriketako itzulia eta bueltan liberalen esku erortzea ez dira bi bertso soiletan aipatuta uztekoak.

## GOGOAN DERABILAT

1)

Gogoan derabilat ez urrutikoa  
Nikolas mutil eder gure artekoa.  
Horretzek nor ote du horren gogokoa?  
Krezentzi neskatxa eder Indartegoikoa.

2)

Horra hor ezkontzeko morrosko zalduna  
arrotz-herritik diruz iritsi zaiguna.  
Mari hortz-eder horrek hiretzat nahi duna?  
Katuak deramala nehork nahi eztuna.

(Aurreko bera. 39. or.)

## GURE ETXEA LAKARREZ

1)

Gure etxea lakarrez  
zenbait aldiz bakar ez.  
Auzoko gizon txur horrek baino  
gehiago gasta ezpalez  
etxea beteko ginuke  
urrez eta zilarrez.

2)

Kantuak aire behar du  
galdurik ere bi ordu.  
Auzoko gizon txur horrek diru  
sobratu anixko ote du?  
Nola gastaturen du  
irabazten ez badu?

3)

Aunitz gizon badire  
munduan bizi baitire  
ez irabazi ez xahutu  
istupa muloa bezala  
halango gizonetarik  
Yinkoak begira nezala.

4)

Nik xahutu tudan diruak  
sakelan banitu bilduak  
pezetetan kontatzeko  
eskas niken ordu bat  
orainik badinat duro bat  
guti yakinik munduak.

(Aurreko bera. 40. or.)

## GAN NINTZEN BARATZERA

1)

Gan nintzen baratzera tipula yorrara  
oina irristatuta erori lurrera.  
Tarala larala lai...  
oina irristatuta erori lurrera.

2)

Etorri zen barbera nerau ikustera  
barberak erran zuen "oina du minbera".  
Tarala...

3)

Etorri zen maitea nigar egitera  
berehala senda nintzen ikusirik bera.  
Tarala...

4)

Hau kusi zuenean mintzo zen barbera  
"gazteak sendatzeko deusik ezker".  
Tarala...

(Aurreko bera. 62. or.)

## GOIZEAN GOIZ TABERNARA

1)

Goizean goiz tabernara etxera berandu  
ai zer mutil ederrak gu errenta bagendu.  
Gure aitak irrika bost aldiz esan du  
“enauk nere egunetan horrela izandu  
aukeran beti bizi nahi duenak lan du”.

2)

Egun mozkortzen bagera biharko zer lana!  
Berriz laster biltzen gera oro alkargana.  
Edan dezagun bada pinterditxo bana  
kaltzaren zulotikan ageriz belauna  
gure diru guzia ardoak darama.

(Aurreko bera. 87. or.)

## AGURE ZAHAR-ZAHAR BATEK

1)

Agure zahar-zahar batek bart gure amari  
mandatu egin dio behar nauela ni.

2)

Gure amak yardespena nola eman baitaki  
etxean badaukala gizon zaharrik aski.

3)

Ama, nik zertako det agure zahar hori?  
Yo ta bota nezake akaba baledi.

4)

Agure zirku marku, berrehun urtekoa  
hi baino hobea diat hogeitau urtekoa.

(Aurreko bera. 125. or.)

## BERTSO BIDA

1)

Bertso bida nioazu  
kantatzera berriak  
agitz erdiragarriak.  
Zeinbat aldiz gustatu zaizkit  
besta eta feriak!  
Bai eta ere ostatueta  
gizon yokalariak.

2)

Juan Martin de Aborreta  
da Erroko semea  
aitaren seme maitea.  
Gizonak eztezala desira  
nik izan dudana suertea  
galdurikan utzi ditut  
lau haurrekin andrea.

3)

Iruñatik ateratzean  
zangoak girgiluz beterik  
eta bihotza tristerik  
erreal ta erdi eta lau kuarto  
ez naukan beste dirurik.  
Etzait izandu despeditzen  
ez eta nere jenderik  
eztute obligaziorik.

4)

Iruñatik Zaragozara  
handikan Valentziara  
jornada luzetxo da  
oin-eskuak zauriturik  
iritsi ginen harara.  
Anda, lapurrak gibeletikan  
sobrearekin berehala.  
Sufritzea ere lana da!

(Aurreko bera. 155. or.)

## MENDIAK BETE ELURREZ

1)

Mendiak bete elurrez  
begitartea nigarrez  
lan eginez urriki dut  
bainan atsegin bat ere ez.  
Orain hemen bizi naiz  
bihotzeko minez.

2)

Oihanean zein den eder  
zuraritz gazte lerdena!  
Zu zira mundu hunetan  
nik maite zaitudana  
ikuskatoren zaitut  
ahalikan maizena.



3)

Mutiko gazte arina  
urguluz gaindi egina  
eztuka konsideratzen  
ihaurrek dukan adina?  
Hik ere ukan dezakek  
oraino xangrina.

(Aurreko bera. 160. or.)

4)

Abenduko gau luzetan  
ardura horma bortetan  
mutiko gazte arinak  
ibiltzen neskatiletan  
kasu egin bezate  
bere aldietan.

*Iturengo harotza, Belateko lapurrak, San Migelen bertsoak, Berdabioko semea...* Nafarroa Garaiak eman du bertso eta kanta eder ugari.

## II

### IZENAK

Nafarroa Garaian bertsolari izendunen lan on bat falta da, edo nik behintzat ez dut ezagutzeko zorterik izan. Beti esan ohi da Nafarroa Garaian ez dela bertsolaritza asko gailendu, baina hori topiko merkea da, lan serio bat egin ezik, orduan uste baino gehiago agertzen baita, neuri Bizkaian gertatu zaidan lez. Izen batzuk aipatuko ditut, beraz, neure ezagutza urriaren araber.

#### JOAN ETXAMENDI LARRALDE “BORDEL” (1792-1879)

Nafarroa Garaiko Luzaide herrikoa izan arren, Bordel, Luzaide bera garai hartan bezala, eta orain ere bai agian, Iparraldeari lotuago zegoen bizitzaz eta kantuz. Bordel izeneko baserritik datorkio goitizena. “Lehen karlistadan presondegiz presondegi ibili eta handik nekez atera zen bizirik. Bertsotan eman zuen bere bizimoduaren berri; antimonarkiko eta antikarlista amorratua izan zen; batez ere apaiz karlisten kontrakoa izan zen”. (*Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa*).

Izate eta jite ezti eta berexiko gizona omen zen. Nekazaria izanik, haren burua beti bertsotan zen. Lur iraultzen ziharduela ere, papera eta luma beti aldean erabiliko zituen. Noizbait hain gabe aurkitzen bazen, soro-lanak bertan behera utzi eta etxera jo-

ango zen, bururatu zitzaiona edo buruan taxutu zuena idaztera. "Hori ez da lanerako manera!" -haserretuko zitzaion ama, baina alperrik, Bordelek har huraxe baitzeraman barnean.

Etxahun eta Otxalderekin batera, garaiko bertsolaririk handienetako izan zen. Bat-batekoak haizeak eraman badizkigu ere, zorionez bertso asko eta onak jarri zituen: *Donostian soldado*, *Mendekoste bestetan*, *Bankako neskatuak*, *Ene andregaiari*, *Apezena*, *Aldudeko kantiak*, *Oroit gaiten guztiok*, *Karlisten kantiak* eta abar. Hona *Mendekoste bestetan* izeneko sortatik batzuk:

1)

Mendekoste bestetan  
aurten Arneik'errekan  
ixtorio bat gertatu da  
kasik ezpaitiot erran.  
Bost emaztek edan dituzte  
hamalaur pint'arno betan  
jokaturik kartetan.

2)

Jokua zuten florian  
Arnei Madrilenian.  
Atso gaixuek uste zuten  
zirela zeruko lorian  
saindu ororen erdian  
bere botoilak aldian  
bai eta plazer handian.

5)

Laugarren hori zer peza  
Maria zapatainesa.  
Untsa esplikatzen zituen  
eskuara eta frantsesa  
bai eta ere aisa egiten  
bide handian esa  
horixe da haren letra.

8)

Zuk ere Etxek'andera  
erran beharzu egia:  
solas hortan zu ote zinen  
horien buruzagia?  
bost emaztek egiteko  
horixe da komedia  
hurran baitzen zahagia.

(Bertsotan 1789-1936, 61. or. Joanito Dorronsoro)

## ANDRES ASTIZ (1863-1924)

Goldarazko bertsolari honek "Goldarazko astoaren bertsoak" izeneko sorta luzea -hogeita zortzi bertso- eta dotorea utzi zigun.

Ez zituen noski bere bizitzako bakarrak izango. Lehen bertsoak honela dio:

Mila zortzirehun da  
larogeita zortzi  
Eliz Ama Santuak  
aurten deramazki.  
Jaunari eskatuta  
grazia lehenbizi  
gertaera polit bat  
nahi nuke adirazi.

(Bertsotan 1789-1936. Joanito Dorronsoro. 191. or.)

## ANDRES MITXELENA

Famatua da Aranoko bertsolari honek 1907an ateratako bertso paper bat: “Andres Mitxelenak bere andregaiari”. Ezkontza galdutako bertsoen adibide hau oso kantatua izan da, bere “esne saltzailearen doinua” izenekoan. Bere andregai izandako Zelestina aranoarrak kantak atera zizkion nonbait eta Andresek erantzun. Hona hamargarren bertsoa:

Aranon jaioa naiz  
askok dakitena  
askok dakitena  
ongi egin da gaizki  
pagatu nautena.  
Igalak zerate  
kuadrila dena  
Zelestinak badauka  
gaur nik aina pena  
Aranon bizitzen da  
Andres Mitxelena.

(Aurreko bera, 195. or.)

## PAULO YANZI (1882-1962)

Igantzi herrian jaio eta Lesakara ezkondurik, "Paulo Etxea"n bizi izan zen. Seme-alaben artean, Pepe Yanzi goi mailako soinu-laria izan zuen. Joanito Dorronsorok honen aipu hau dakar: "Gure etxean izaten zen beti umore ona. Aitak jotzen zuen akordeoia eta kantatzen zituen bertsoak. Nire amak oso ongi kantatzen zuen... Nik pianoa eta klarinetea jotzen nituen eta nire arre-bak pianoa. Musika faltarik ez zen gure etxean izaten... Horrela jende aunitz etortzen zen gure etxera...". Eta Joanitok jarraitzen du: "Paulok ez zuen ahotik ahorako bertso lanik egin. Baina jarri bai, bertsoak erruz jarri zituen. Eta bertsolari gazte mordoa sortarazi zuen bere inguruan: bere seme Pepito, iloba Josetxo, Etxarte, Dabid Aranburu eta Leon Bereau. Eta gero giro horretan sortuko dira Arozamena bi anaiak ere". 1922 inguruan "Afrikako gerrarenak" izeneko hogeita bost bertso jarri zituen. Sorta honengatik militarrekin problemak eta mehatxu gogorrak jasan zituen. Lehen bertsoak honela dio:

Bertsuak jartzen naiz hasi  
kopiatuz eta guzi  
nahi dituenak ikasi.  
Afrika aldera oraingo aldian  
gazteri haundiak duazi  
diote adierazi  
ez dela joan behar ihesi  
amak negarrez daudezi.

(Aurreko bera, 257. or.)

## MIKEL AROZAMENA (1930-1976)

Lesakar honek bertsolaritza klasikoaren ofizioa ondo menderatzen zuen. Nafarroako txapeldun hirurogeita bian eta hiruan,





Afrikako gerran, 1922. urtean, mutil ugarik eman zuen bizia...

Euskal Herriko txapelketetan ere maila dotorea eman zuen. Baitere ustekabeen hil zitzaigun, oraindik gizon sasoiko. *Eskerrak artean Auspoa* liburutegiak bere "Nere aldia" liburua argitaratua zion.

1967ko txapelketa nagusian bertso hau kantatu zuen, lau oinak emanda:

Etxe ondoan daukagu  
eundoko ibaia  
baina urri xamar dago  
barruan arraia.  
Urumea erreka  
hor dauka usaia  
garbitzeko're mutillak  
badiyeu garaia.

(Bertsotan II, 1936-1980. Joanito Dorronsoro. 70. or.)

## ANDRES NARBARTE "XALTO" (1927-1971)

Narbarte goizuetar hau ezin popularrago egin zen bere garaian. Batere eskolarik gabea, basati airekoa, gorputz luzea eta zimela, beti ere makur samar, bertsotan bere mundu silbestretik natural zetozkion ateraldiekin harritzen gintuena, bihotz onegi-koa eta erraz abusa zekiokoen horietakoa. Hura behin ikusten zuena ez zen harren irudiaz ahaztuko. Beti nekazaritzan lan egirik, ez zuen ezkontzeko plantarik hartu eta azken tristeia izan zuen, sasiak erretzen ziharduela suak harrapaturik.

1960 eta 1964an Nafarroako txapeldun izan zen, gero handik Euskal Herrikora pasaturik. Goizuetako apaizari kostatu omen zitzaion Narbarte txapelketara aurkezteko konbentzitzea. Euskara indartzen ari zela, hori ona zela, munduko hizkuntzarik zaharrena zela, Jesukristo bera baino lehenagokoa... baina alperrik.

- Euskarak, Ziolatik haruntz eta Berrenetxetik behera, ez du batere balio -erantzun zuen, Goizuetako bi toki-izen aipatuz.

- Ez duela balio?

Orduan apaizak kontatu zion nola behin Hendaian galdetu zuen “a dónde va este tren” eta inork ez zion erantzun. Gero, hura Euskal Herria zela pentsaturik, euskaldunik bazen han galdetu zuen eta gizon batek zutitu eta esan ziola hura ez zela Parisera tren, Paristik zetorrena baizik eta hari esker hartu zuela behar zen tren. “Ikusten nola euskarak Goizuetatik urrun ere balio duen?”. Arrazoi horrekin Narbartek etsi zuen eta aurkeztu zen. Eta hain zuzen bi Goizuetar geratu finalista. Eta hain zuzen gaitzat “Euskara” jarri. Narbarte apaizak esan zionaz gogoratu zen, euskara hizkuntza zaharra zela eta abar eta orduan bertso batean kantatu zuen Jainkoak ere euskaraz egin zuela, hemen predikatzen ibili zenean. Ikaragarrizko txaloak jaso eta txapelkun geratu zen. Baita diru guztiak etxera orduko lagunak gonbidatzen gastatu ere.

1960ko txapelketa nagusia zen. Egun haietan Fabiola espainola Belgikako Balduino erregearekin ezkondua zen eta Irigoienek puntu horixe jarri. Narbartek ez zeukan Fabiolaren entzuteirik ez belgatarren arrastorik. Eta begira nola atera zen esturatik.

*Belgatarren erregin  
egin da Fabiola*

**Narbartek**  
igerri diot, Alfontso  
egia diola.  
Beste gainekoan etzan  
mintzatuko horla  
hantxen pentsatuzten det  
zerbait badagola.

(Aurreko bera, 170. or.)

Bertso hau famatu egin zen. Narbarterentzat belgatarrak “hantxen” eta Fabiola “zerbait” ziren. Hala ere harrigarriena Lasarteri entzuna diot. Behin Lasarte Goizuetara deitua izan zen bertsoara eta Narbarte zuen lagun. Lasartek “zer moduz bizi zera zure etxalde hortan” edo horrelako zerbait kantatu omen zion bertso batean eta Narbarteren erantzuneko bertsoaren lehen bi puntuak hauexek izan ziren:

Gure etxea han arkitzen da  
ez habe ta ez teillatu  
katuak hotzak hil zun ganbaran  
hortikan konsideratu.

Kontu izan lehen bi puntuak normalean betegarriak izaten direla, baina Narbarteren ideietan beste ordena bat zegoen. Lasarteri ez zitzaion bertso erdi hura ahaztuko, ezta neuri ere entzun nionetik, deskribapen harrigarria baita, beharbada Narbarteren buruan eta bizimoduan gauzarik naturalena izango zen baina.

# GIPUZKOA

## BERNARDIN ARIZTITARRA (1761-1825)

Biografia de Bernandinu Ariztitarra, gipuzkoar idazle eta politikariaren buruzko liburu bat da. Liburuak Ariztitarren bizitza eta lanak azaltzen ditu, bereziki bere idazlanak eta politikaritzaren inguruan. Ariztitarra 1761an jaio zen eta 1825ean hil zen. Bere idazlanak, batez ere, gipuzkoar literatura eta politikaren inguruan dira. Liburuak Ariztitarren lanak azaltzen ditu, bereziki bere idazlanak eta politikaritzaren inguruan. Ariztitarra 1761an jaio zen eta 1825ean hil zen. Bere idazlanak, batez ere, gipuzkoar literatura eta politikaren inguruan dira. Liburuak Ariztitarren lanak azaltzen ditu, bereziki bere idazlanak eta politikaritzaren inguruan.

Hemeretzigarren mendean plazako bertsolaritza batez ere Gipuzkoan nagusitu zen. Geroztik lurralde honetan nonahi eta noiznahi praktikatu da bertsolaritza eta ia nonahi izan da bertsolari. Horregatik hemen ez dut anonimoen sailik sartuko, izenekin ere nahiko eta gehiegi baitago.

## FERNANDO AMEZKETARRA (1764-1823)

Gipuzkoan hartaz konstantzia dagoen lehen figura handia Fernando Bengoetxea Altuna da, *Fernando Amezketarra* gisan historiara pasatua, Amezketarra zelako. Lekukotza guztiek garai hartako gipuzkoar bertsolari guztien buru jotzen dute. Bertsolariz gainera, gizon ditxolaria eta pasadizo ugarikoa izan behar zuen. Denboran zehar bereak ez ziren gertaerak ere hainbat erantsi zaizkion umorezko pertsonaia hau leienda bihurtu da Euskal Herri guztian. Nork ez du entzun Fernando Amezketarraren halako eta bestelako hainbat ipuin eta xelebrekeri? Pernandok herriko eta inguruko apaizekin mila modutako pasadizoak dauzka. Behin, komunio txartelaren bila joan zenean, erretoreak bertso hau bota omen zion:



Esan behar didazu  
instante batean  
liburutik txartela  
nik atera artean  
nola sinisten dezun  
zuk zere artean  
daudela hiru pertsona  
Jaungoiko batean.

*Eta Fernandok erantzun:*

Nola sinisten dedan  
arrazoiarekin  
orain esango diot  
sagartxo batekin.  
Usai ta zaporea  
kolorearekin  
horra hiru jenero  
gauza bat batekin.

Pernandoren garaiko beste bi figura Amezketako Zabala eta Hernaniko Txabalategi dira. Hauen izena Billabonan jokatu zuten desafio bategatik batez ere pasatu da historiara. Fernando epaileetariko bat zen. Bi orduz probatu ondoren, berdinean uztea izan zen epaia. Lau mila euskaldun inguru bildu omen zen desafio historiko hartara. Horrek esan nahi du bertsojaritza Gipuzkoan fenomeno masiboa eta prestigiotsua zela.

Garai hartako beste izen handi bat Pastor Izuela zen, Gipuzkoako Aiako Izuela baserrian 1780-2-8an jaioa. Bertsolari zorrotza eta famatua izan zen. Behin, Iturriozko benta batera sarturik, sardinazarra erretzen ari zirela ikusirik, bertso hau kantatu zuen:

Baietz usteko dezute baina  
ez nago oso lasaia  
zalduniote egunerako  
sardinzarraren usaia.  
Animarentzat mesederik ez  
gorputzarentzat etsaia  
ez da horrela kostunbratua  
Izuelako artzaia.

*Gipuzkoako Dantzak* izeneko liburuan (beste batzuk ere idatzi zituen) garai honetako bertsolaritzaren berri eman zigun Joan Inazio Iztueta zaldibitar dantzari eta idazleak (1767-1845) berak ere jarri zituen bertsoak. Oso entzunak dira *Kontxesiri* izenekoak, neurri eta doinu guztiz berezikoak, honela hasten direnak: *Maite bat maitatzen det maitagarria...*

## XENPELAR (1835-1869)

Destinoak hogeita hamalau urteko bizia bakarrik eman zion Joan Frantzisko Petrarena Berrondori Erretereriko bere jaiotetxe-baserriak eman zion betiko izena: Senpere-larre, Senpelarre, Xenpelar. Gizon hau bertsolaritzaren historia guztiko gailurrik gorenetakotzat jo beharrekoa da, bai bere ekarriagatik, bai eduki zuen eraginagatik. Haren entzutea, bere garaian ere, Euskal Herri guztira zabaldu zen, izen mitiko bihurtzeraino. Hazparneko Mengiage bertsolari handiak, 1880 inguruan, badauka *Es-kualdun Bertsulariak* izeneko sorta bat. Bertan Iparraldeko bertsolari askoren izenak jaulkiz doa eta ez edonortzuk: Etxahun, Bordaxuri, Otxalde, Elizanburu... Hegoaldetik Iparragirre eta Xenpelar bakarrik aipatzen ditu, Iparragirrez goralben handiak eginez. Eta Xenpelarrez, emaniko zerrenda guztien amai gisan, dio:

Bat bertzia baino hobe, norbeit izan behar  
guzientzat nagusi izan da Xenpelar.

Ez naiz hasiko Mendiageri tematzen Xenpelar Etxahun eta Elizanburu baino handiagoa izan ote zen. Bertsotan esanak ez dira iritzi kritikotzat hartzekoak, baina argi dago Mendiageren sentipenak nor zeukan handientzat. Horrek esan nahi du Xenpelarrek Iparraldean ere hango izarrei geriza egitea lortu zuela.

Harrigarria da Xenpelarrek nola eduki zuen hain errima eta neurri ezberdinetan kantatzeko sena, bertsolaritza gehienbat oso molde jakin eta bakanetan zebilen garaian. Alde horretatik Xenpelar eztanda bat bezala izan zen, beti ere inertziara eta egitura ezagunetara joera daukan jenero batean. Baina ez da forma kontua bakarrik. Edukiz eta estiloz ere, Xenpelarrek sen aparteko bat ukan zuen, bere bertsoak herriaren estimu eta miresmenera helarazteko. Gaur ere haren bertsoak kantatu edo gutxienez entzun gabeko euskaldunik ez da egongo: *Aizak bi mutil, Beroiare-nak, Pasaiaiko plazatik, Iparragirre abila dela, Ia guriak egin du, Ez-kondu eta ezkongai, Mutilzaharraren bizitza, Frantsesaren ideak, Aranon sortu dira* eta abar. Hona hemen desfiozko bertso batzuk. Patxi Bakallo Hernaniar bertsolariak Ardotx eta Xenpelar desfiora gonbidatzen ditu, kartaz eta honela:

1)

Inork baldin badaki  
Oartzungo berri  
eskumiñak Ardotxi  
eta Xenpelarri.  
Dibertsio polit bat  
nahi genduke jarri  
bidez erdi bezela  
dago Benta Berri  
konbidatutzen ditut  
nahi badute etorri.

2)

Desafio hori da  
Benta Berrirako  
konformatzen badira  
bidez erdirako.  
Ez bazaie egiten  
gogorik harako  
lagun bat hartuko det  
nere guardirako  
igual prestatuko naiz  
Erreterirako.

*Xenpelarrek honela erantzun zuen:*

1)

Pazko bigarren goizian  
hartu nuen karta  
bestek firmatua da  
ez da zure falta.  
Suma ederra dezu  
eztarria alta  
abiatuko nazu  
hitz hauek esanta  
gizona zerbitzia  
debertsio bat'a.

2)

Xenpelar probatzeko  
egin dute masa  
gizon baten hitzari  
hartu diot traza.  
Ez Astigarragatik  
honuntzago pasa  
bertara juango naiz  
egon zaitez lasa  
nahi dezun ordurako  
eska zazu plaza.

(Bertsotan 1789-1936. 91. or. Joanito Dorronsoro).

## **XENPELARREN INGURUKOAK**

Aipa berri dugun Patxi Bakallo (1832-1898) oso bertsolari handitzat jotzen zen garai hartan, baina bigarren karlistada inguruan Argentinara joan zen familia osoarekin eta haren bertsolari izatea erabat aldatu zen. Bertso asko bidali omen zuen Argentinatik.

Oiartzungo Larraburu (1829-1867) izan zen garai hartako beste figura bat. Xenpelarrek bertso batean, beste izen mordo bat aipatu ondoren, honela amaitu zuen: "Larraburu jartzen det gobernadore". Indar handiko gizasemea eta gizon gustagarria izan behar zuen.


Oiartzunen, Larrabururen auzo berekoa zen Ardotx ere (1826-1878). "Ardotx paregabe" dio Xenpelarrek bere bertso batean, baina bertsolari ona bezala, gizon zital samarra izan behar zuen, beti desafio eta saltsa bila zebilen horietakoa. Eta Larrabururi sufritzea egokitu. Joanito Dorronsorok aipatu liburuan, Auspoa 115. liburuko aipu hau ematen du:

“Larraburuk eta Ardotxek afaria egin zuten San Inazio egu-  
neko arratsean Ugaldetxoko Mikelentxone sagardotegian. Eta  
afalondoan bertsotan hasi ziren. Larraburuk (...) aise tapatzen  
zuen bestea. Ardotx, bere gustoa egin ez zuenean, kanpora atera  
zan. Eta Larraburuk segi sagardotegian. Ardotx kanpora atera eta  
bide bazterrean izkutatuta zai jarri. Eta Larraburu etortzean,  
harri batekin buruan jo, kopeta ebaki eta bizitza osorako burutik  
nahastuta utzi zuen. Larraburuk zortzi bertso jarri zizkion, bar-  
kazioa eskainiz. Ardotxek geroztik negar egiten omen zuen,  
baina...”.

Garai honetako beste izen batzuk dira Eperra, Juan Kruz  
Elizegi (Pello Errotaren anaia), Agustin Zakarra, Xorrola, Urtxa-  
le (*Maitia nahi badezu* sorta famatua), Pedro Santa Kruz (*Mutil  
zaharren bertsoak*) eta abar. Bertso jartzaileetan aipatzekoa da Al-  
tzoko Imaz (1811-1893). Plazagizona ez bazen ere, bertsoak jar-  
tzen aparta zen. Pello Errotak esaten omen zuen: “Bertso jartzen  
gu ez gera Imazen zapatak lotzen hasteko ere”. Erbiari jarritako  
bertsoak Euskal Herri guztira zabaldu ziren. Bertso politikoak  
ere asko atera zituen, karlisten alde eta liberalen aurka.

## BILINTX (1831-1876)

Indalezio Bizkarrondo Ureña Donostiko Alde Zaharrean jai-  
to zen. Bizitzak ez zuen ondoegi tratatu gaiztoa. Umetan, jolasean  
zebilela, erori eta egundoko aberia egin zuen aurpegian, bizi guz-  
tirako deformatua gelditurik. Honek haren bertsoen tristuran eta  
malenkonian zerikusi handia eduki zuen. Zezen batek izterrean  
adarra sartuta ere oso gaixo egon zen. Nahiko adindurik ezkon-  
du zen Nikolasa Erkizia azkoitiar emakume batekin, amodiozko  
hamaika bertso ezkor kantatu ondoren. Azkenik, karlisten bigar-  
ren gerratean, San Sebastian egunean, jairako traje berria jazen  
ari zela, bonba bat gelan sartu eta hanka biak desegin zizkion.  
Hartatik hil zen handik sei hilabetera, ez gutxi sufritu ondoren,  
berrogeita bost urteko gizon sasoko oraindik.



Indalezio Bizkarrondo "Bilintx", Antonio Valverde "Ayalde"ren ikuspe-  
giz.



Bilintx bertsolari eskolatua izan zen, erromantizismo beran-korreko uhinak probatu zituena. Bazuen erdal literaturen berri eta seguruenik asko irakurria izango zen. Baina haren bertsoetan herritasunaren oinarri sendoak ageri dira, umorea eta ironia ere noiznahi isurtzen zaizkiola. Bilintxek bai kaletarren eta bai base-rritarren gogoko izatea lortu zuen eta horretarako formula batzuk aplikatzea baino zerbait gehiago behar da. Izan ere haren bertsoak eleganteak, naturalak, ezin hobeto eginak, era batera kultoak eta herritarrak, eta agian guztiaren gainetik hunkigarririk dira. *Kontxesirentzat, Loriak udan, Juana Bixenta Olabe, Behin batian Loiolan, Triste bizi naiz eta...* zenbat sorta, bihotza ukitzen dutenak.

Bertso sentimentalez gainera, bestelakoak ere badauzka eta orduan Bilintxen ironiak eta umoreak zorroztasun elegantea garatzen dute: *Domingo Kanpaña, Zaldi zuriarenak, Potajiarena, Joxepari desafioa* eta abar. "Dama bertsolari" hondarribiar honek bertsoak atera zituen nonbait, Bilintx ez zela bertsolaria esanez. Eta bai dotore erantzun ziola Bilintxek. Hona lehen hirurak:

1)

Aspaldian, Joxepa  
famatua zeunden  
gu berriz ikusteko  
desiotan geunden.  
Hondarrabi aldian  
aditzen genduen  
dama bertsolari bat  
nola bazeguen  
zeinak Euskal Herrian  
parerik etzuen.

2)

Egiak ote ziran  
famaren hots haiek  
bixitatu zintugun  
zenbait jakinzalek  
hamar edo hamabi  
donostiatarrek  
haiekin batian zan  
bizar haundi harrek  
izkiribatzen dizkitzu  
zuri bertso hauek.

3)

Ni bertsolaria naiz  
bainan det aditu  
ez nitzaizula zuri  
hala iruditu.  
Zuk horla pentsatzia  
ez da zer harritu  
nere jakinduririk  
ez nuen argitu  
zergatikan ez nintzan  
premian arkitu.

Hondarrabiar “dama bertsolari” horren berri gehiago edukitzea estimatuko genuke, ez baitzen nornahi izango, joan zen mendearen erdi aldera halako entzutea edukitzeko, eta Bilintxi bertso gutxieskorrak ateratzen ausartzeko. Ez al dago hondarribiarrik, ikerketa hori egingo lukeenik, egina ez badago?

### IPARRAGIRRE (1820-1881)

Urretxuko seme Jose Maria Iparragirre bertsolari kantaria edo kantari bertsolaria zen, Xenpelarrek botatzen dion “hatoz gure kalera, baserritar legera” pentsakeratik eta ibilbide estutik asko zabaldu zena. Gizon ikasia eta mundu asko ikusia, gerratik hasita. Lehen karlistadan, oso gaztea dela, Gipuzkoako gudalostean sartzen da, baita hiru aldiz zauriturik gertatu ere. Bergarako Besarkada hondagarriaren ondoren, Frantziara alde egiten du, non bere gitarrarekin kantari dabilen. Hemendik ere bidaltzen dute eta Europa guztia korritzen du. Euskal Herrira itzultzen da, baina laster aurkitzen da berriz alde egin beharrean. Oraingoan Ameriketara doa eta Uruguay eta Argentinan hogeita hiru urte luze artzantzan egin ondoren, Euskal Herrira itzuli eta Ezkio-Itsason hiltzen da.

Iparragirre gutxi arituko zen bat-bateko bertsogintzan, ez baitzen ibili ere egin aritzeko tokietan. Baina haren kantuak, bertsolaririk onenen pareko hedapena lortuz gainera, bertsolariak iritsi ez diren sektoreetara iritsi dira. Nork ez ditu ezagutzen *Gernikako arbola*, *Zibillak esan naute*, *Ume eder bat*, *Hara nun diran*, *Gazte gaztetandikan*, *Gitarra zahartxo bat* eta abar?

## UDARREGI (1829-1895)

Juan Jose Alkain Iruretagoiena, Aiakoa jaiotzez, Usurbilera aldatu zen oso gazterik familia osoarekin Udarregi baserrira. Bat-bateko bertsogintzan asko ibiliz gainera, bertso jarrietan ere ugarria da oso. Bizimodua nekazaritzatik ateratzen zuen arren, haren burua beti bertsoen inguruan zebilen. Pello Errotarekin haserre gogorra eta bertso-truke gupidagabea izan zuen, Pelloren atalean kontatzen dena.

Udarregi eskola gabeko bertsolarien adibide bitxienetakoa da. Ez zekien ez idazten ez irakurtzen eta, hala ere, haren seta bertso paperak ateratzea zen, herriz herri ez zebilenean. Usurbilgo organistak laguntzen zion horretan. Hain kasu bitxia da, ezen bere alfabeto propioa asmatu omen zuen, jarriz zihoan bertsoak gogoan edukitzeko. Ganbarako zutabeetan eta logelako hormetan teila batez halako markak edo arrastadak eginik, gero seinale haietatik irakurtzen zituen bere modura gogoan eduki beharreko bertsoak. Sorta osatutakoan, organistak paperean jarriko zituen eta hortik aurrera bide jakina da. Bertso oso famatu bat emango dut, Udarregiren estiloa ezin hobeto adierazten duena. Behin Donostiko udaletxera joan zen zerbaiten bila eta ikusiz batera, hango langileek ezagutu eta bertso bat botatzeko eskaturik, hauxe kantatu omen zuen:

Kontzejura etorri naiz  
paper baten billa  
pentsatzen jarrita ere  
hau dek alper pilla!  
Pluma eta tintero  
bastoi ta makilla  
herria altxatzeko  
a ze kuadrilla!

(Bertsotan. 1789-1936. 163. or. Joanito Dorronsoro).

## PEDRO MARI OTAÑO (1857-1910)

Zizurkilgo Errekalde baserriko gizon hau da bertsoaritzan itzalik handienetarikoa lortu duena. Bat-bateko bertsoaritzan ez zen askorik aritu. Alde batetik eztaerriak ez bide zion laguntzen eta orduan ez zegoen mikrofonorik. “Katarro” deitzen zioten. Eta bestetik Ameriketara, Argentinara, egin zuen urte asko eta azkenean bertan hil zen, Rosario hirian, 53 urterekin.

Pedro Mari Otaño gizon eskolatua zen, baina haren hizkera landuak eta edertasunaren bila zuzen zihoanak sekula ez zuen herritasunik galdu. Atzerriak eta herriminak asko markatu zuen Otañoren bertsoaritzak. Etengabeko tristura puntu hark berari ez zion onik egingo, baina bai bere bertsoaritzari, egitasuna eta sentiberatasuna eransten baitzizkion. Bat-bateko bertsoaritzen artean desafio kutsua eta sarritan haserrea ere ageri zen arren, garaiko eta ondorengo bertsoari onenek egundoko begirunea izan zioten Otañori. Hura beste altuera batean kontsideratzen zuten denek. Gaur ere bertsoari eta bertsozale bat baino gehiago egongo da, izen bakar bat eskatuz gero, Pedro Mari Otaño emango lukeena. Haren sorta ospetsuak dira: *Limosnatxo bat*, *Lagundurikan danoi*, *Amerikara nua*, *Amerikako panpetan*, *Txepetxa*, *Unamunori*, *Oroitxatxoak*... Hona azken titulu honetako bertso bat. Atzerri urrunetik Euskal Herriari diotso:

Urruti zaude eta zaila da  
ni zugana irixtia  
honenbeste nahi dizun batentzat  
zer bizimodu tristia.  
Alibio bat bakarra daukat  
ametsetan sinistia  
zu ikusteko noiznahi asko det  
nere begiak ixtia.

(Pedro Mari Otaño'ren bertsoak. 85. or. Kuliska Sorta. Itxaropena. 1959)

Pedro Mari Otaño ez zen familian bakarra izan. Haren osaba Jose Bernardo Otaño eta honen aita Pedro Otaño "Errekalde zaharra" bertsolari handiak izan ziren. Batez ere Jose Bernardo asko ibili zen herriz herri, Pello Errotarekin batik bat. Badirudi gehiago ez zela ibili, diru premia handiegirik ez zeukalako.

## PELLO ERROTA (1840-1919)

Pedro Jose Elizegi, bizibidez errotaria zelako Pello Errota deitua, bertsolaritzako beste leiendatxo bat da, diminutiboa zuzen datorrena, gizon txikia baitzen. Txirrita Pello Errotaren doble baino gehiago zen pisuz. Ikustekoa izango zen biek bikotean egiten zuten koadrua.

Pello Errota, txikiaz gainera, bizkorra eta bizia zen oso. Badirudi honek ere bertso gintza zuela buruko ardura nagusia. Zortzi seme-alabaren aita izanik, errotak apenas ematen zion denak ondo hazteko adina eta bertsoetako etorritxoa ez zuen gutxi estimatuko. Haren ibilerak herriz herri, jaiez jai, txapelketa, desafio eta abar izan ziren. Haren dohai nagusiak umorea eta barrea, ziria eta eztena ziren. Bertsozaleak ia hura ikuste hutsez gozatzen zuten. Hain popular bilakatu zen, non amerikano batzuek joanetorri osoa ordainduta eraman zuten Argentinara, hango euskaldunei kantatzera.

Pello Errotak eta Udarregik haserre sonatua izan zuten, Azpeitiko sari bat zela-ta. D'Abbadie jaunak babesturik, Azpeitian Euskal Festak antolatu ziren 1893. urtean. Programako atal nagusia bertsolari lehiaketa bat izan zen. Bost mila lagunetik gora batu omen zen Azpeitiko udaletxe aurrean, honen balkoietatik kantatzen baitzuten. Epaimahaia ere izen ospetsuek osatzen zuten: Azkue, Domingo Agirre eta Felipe Arrese-Beitia. Hasieran hainbat bertsolari hasirik, azken saiora Jose Bernardo Otaño, Udarregi eta Pello Errota pasatu zituzten. Eta azkenean Pello Errotari eman zioten saria, Jose Bernardorentzat eta Udarregi-  
rentzat beste saririk ez egotea tamalgarri zela adieraziz.

Badirudi Pello Errota eta Jose Bernardo, ia elkarren auzo zirenak, batak edo besteak irabaztekotan, saria erdibanatzeko aurrez hitz eginak zeudela. Halaxe egin zuten eta Udarregi ezer gabe gelditu zen. Handik denbora batera Udarregik Pelloren aurkako bertsoak atera zituen. Gero honek erantzun. Berriz Udarregik, Jose Bernardo ere saltsan sartuz, honek erantzun, gero Pello Errotaren aldekoak ere sartuko ziren, berdin Udarregiren aldekoak, azkenean batari tira, besteak ordainak, sesio honek bederatzi puntuko bertso-trukerik ugariena ekarri zuen. Haserreak Udarregi hil arte jarraitu zuen. Honek hiltzorian Pello Errota etortzeko eskatu zuen, baina hau iristerako, gizona hila zen. Mundu honetan ezin izan zioten elkarri bakerik opatu.

## TXIRRITA (1860-1936)

Jose Manuel Lujanbio Retegi, Hernanin jaio eta hamairu urtetik Erreteriko Txirrita baserrian bizi izana, bertsolaritzaren historia guztiko mitorik handienetako bihurtu da. Handia zen gorputzez, bere 150 kiloren inguruan, eta handiagoa bertso senez. Bere bizibide izan zituen nekazaritzan eta hargintzan ez zen langile amorratua izan. Taberna eta lagunarte zalea izanik, alper eta parrandari fama gelditu zaio. Baina hark esaten zuen bera bere lanean ez zela alperra. Bere lana bertsoa zen eta horre-



tan ez zitzaion arrazoirik falta. Bat-bateko saioak alde batera utzita, hauek zenbatzea ezinezko baita, ez dakit badagoen bertsolariarik, Txirritak adina bertso jarri duenik.

Txirritaren ibilerak leienda bihurtu dira. Bat-bateko saioetan asko ibili zen, ahal zuen guztian, eta garai hartako ibilbideak oraindik urri samarrak izan arren, bere eskualde hurbilean noiznahi aurkituko zuen bertsoarako aitzakia, sagardotegira inork deitu gabe joanda bazen ere. Txirritaren ateraldi eta pasadizoak ere ez dira gutxi, asko egizkoak eta batzuk erantsiak, gizakume ospetsu guztiei gertatzen zaien bezala. Ez dakit bertsoa ala ateraldia den, baina bere alper fama zela-ta behin esan zuen berak lanari ez ziola batere bildurrik, kapaz baitzen haren ondoran lasaitasun osoz etzanda egoteko ere.

Ondoren kontatuko dudana Lasarteri entzuna diot. Txirritak, gizon handiz gainera, burrukari eta jotzaile ona izan behar zuen. Behin, tabernan eserita zegoela, han sartzen dira atetik bi mutil puska eta astiro baina zuzen, Txirritarenganantz doaz. Izango zuten aurretik liskarren bat, garbitu gabe utzia. Txirrita berehalaxe jabetu zen haien asmoaz eta zutitu eta horma kontrara jarri zen, bizkarra gordez. Mutilak hurbiltzean, Txirritak esan zien: “Binaka joko nauzue, baina nik banaka harrapatuko zaituztet”. Mutilek atzera egin omen zuten.

Txirritaren bertsogintza gardena eta grazioso da erabat, originaltasun handikoa, bizitasuna eta ironia, baita inoiz satira ere, naturaltasunik handinez konbinatzen dituen. Eta batzutan espresio harrigarriak jaulkitzen zaizkio. Pedro Mari Otañoren heriotza zela-ta, hamarreko txiki baten azken bi puntuak honela kantatu zituen: “Nik aginduta ez da Jaungoikuak hilla, zeruaren erdian gertatu dedilla”. Azken puntua topikoa da, baina azken aurreko horren indar ia blasfemoak gogortuta uzten zaitu. Edo: “ni naizen bezin kobarderikan inor ezin leike izan, semeak gerrâ ez joateatik mutilzar gelditu nintzan”. Edo: “Beste munduan ikusten badet eman biaizkat graziak”.

Txirritaren gomutan umorezko irudia gelditu zaigu gehienik eta bere bizitza luzean horretarako eman zuen motibo

gehien, baina era berean esan dezakegu Txirrita izan dela bertsolari klasikoetan beharbada politikoena. Haren bertsoetan sagar-dotegiko informazioa baino gehiago agertzen da, edo berak irakurrita edo zakienari galdetuta. Kontzientzi mailan ere Txirritak ez zuen inoiz esango Xenpelarren "gu gera hiru probintzi". Txirritak zazpi senideen batasuna argi zeukan. Foruen kentzeaz, Euskal Herriaren historiaz eta beste zenbait gertakari politikoz bertso asko jarri zuen Txirritak. Hona Canovas del Castillo-ren heriotzaz kantatu zuena:

Hil da Canovas, joan da Canovas  
pikaro gaizki hazia  
galdu zituen ifar garbiak  
jarri du trumoi nahasia.  
Galdu zituen Fueruak eta  
Jangoikuaren grazia  
galdu zituen bere lagunak  
galdu du bere bizia.

(Bertsotan 1789-1936. 213. or. Joanito Dorronsoro).

Bertso honek indar ikaragarria dauka, bai ideengatik, bai hitz eta egituren errepika hain oportunoagatik.

## **FERMIN IMAZ ETXEBERRIA (1879-1929)**

Fermin Imaz donostiarra Txirritaren garaiko bertsolari handietako bat izan zen, batez ere bertso jarrietan. Hala ere, Txirritarekin izandako haserre gordin bategatik pasatu da gehienbat historira. San Tomasetan urtero egiten zen bertso saio bat Donostiko Teatroan eta Txirrita zen nonbait bertsolarietako deituez arduratzen zena. Fermini sarritan deitu zion eta urte batez, deitua izango zen itxaropenez, traje berria ere egina zeukan, saio hartako soldatarekin ordaintzekotan. Baina Txirritak ez zion deitu eta

ordaindu ezinik gelditu zen. Orduan Fermin Imazek hamalau bederatzi puntuko bertso paper bat atera zuen Txirritaren aurka. Honek erantzun eta hala jarraitu zuen bertso-trukeak, elkarri izugarriak jaurtiz.


## TXIRRITAREN GARAIKIDEAK

Txirritaren garaian beste izen garrantzitsu asko izan zen eta batzuk aipatuko ditut. Joanito eta Pello Zabaleta anai erreteriarrek bertso asko jarri zuten, bai elkarrekin eta bai banan, batez ere "Bertsolariya" izeneko orduko aldizkarian.

Joan Kruz eta Jose Zapirain anaiak ere erreteriarrek dira eta bertso paper askoren egileak. Juan Jose Sarasola Azkue "Lexo" (1897-1950) dugu beste bertso jartzailerik ugarienetako bat. Donostian kalegarbitzaile gisa bizimodua atera zuen bederatzi seme-alabaren guraso honek bertsoa besterik ez omen zeukan bu-ruan eta bertso paperetatik ateratzen zituen txanponak ez ziren gaizki etorriko hain familia handirako.

Txirrita eta Pello Errotarekin asko ibilia zen beste izen handi bat Aginagako Juan Bautista Urkia Portu "Gaztelu" da. (1880-1934). Bertsolari ugaria eta zorrotza, plazan behintzat Pellorekin eta Txirritarekin ez zen apalago geldituko. Behin, jantzi kontuak aterata, Txirritak etxean arropa bikainak zeuzkala kantatu ondoren, Gazteluk erantzun dotore hau eman zion:

Bere buruarentzat  
halako grandeza  
behartsua danikan  
aditu nahi eza.  
Etxean ez dauka noski  
traje aldrebesa  
baina ez da egongo  
billatzen erreza.



Jose Manuel Lujanbio "Txirrita"

Frantses Txikia izan zen orduko plazetako beste izen handienetako bat. Baita Saiburu, Txirritaren lehengusua, Telleri-Txiki, Lexoti, Mendaro eta abar. Oiartzun aldean Jose Joakin Urieta "Kaskazuri" (1873-1932) aipatu beharra dago, oso famatua, baita parrandaria ere nonbait. Honek bere buruari jarritako bertso sorta jeneroan onenatarikoa da. Honela dio bosgarrenean:

Txiki txikitandikan  
harro ta tunante  
kontrariua pranko  
gutxi dut amante.  
Grina gaizto guziak  
tiratzen didate  
aitzurak eta palak  
mudatuko naute.

Kaskazuriren anai Antoniok ere bertso seikote famatua bidali zion Jose Joakini Argentinatik, *Nere sentimentua nahi det deklaratu* hasten den hura. Eta atal hau ezin amaitu beste bertso sorta famatu batzuk aipatu gabe. Iturrinoren *Markesaren alaba*, Uztarriren *Bizkaiko txerriarenak*, Joan Mari Zubizarretaren *Jose de Tejeria da nere grazia*, (Azpeitian urkabera kondenatu zuten gizonaren kondaira), Estradaren Kintuen bizitzari, eta abar.

Txirrita eta bere garaikideak zahar samarturik, gerra aurrean hutsune bat gelditu zela kontatzen du Basarrik eta hutsune hori Txapel eta Zepai azpeitiarrek bete zutela, nahiz eta gerra ondoren ere jarraitu. Txapel (1893-1969) oso bertsolari txukuna eta arrazoi finekoa zen, Zepai (1906-1971) berriz zorrotza eta horzkaria. Bien artean bikote popularra egiten zuten. Zubeltzu ere (1894-1975) hauekin batera ibili zen, batez ere Txapelekin. Hauek gerraurrea eta gerraostea lotu zituzten, bata zein bestea aro ilunak euskararentzat eta bertsolarientzat, batez ere gerraostea. Hala ere, ez zen katea eten.

## BASARRI (1913-.)

Ignacio Eizmendi, Basarri izengoitiz ezaguna, Gipuzkoako Errezilen jaio zen. Haurtzaroko lehen urteak han iraganik, familia Zarautzera aldatu zen eta geroztik han bizi izan da beti. 1935ean, Txirritak eta beste hainbat garaiko bertsolari handik parte hartzen zuen txapelketan, Basarri gaztea irten zen txapel-dun. Hurrengo urtean gerra zibilak, beste milaka mutil euskal-dun bezala, Basarri frentera eramango zuen. Gerra galdu eta Franco diktadorea nagusitu ondoren, Euskal Herriarentzat eta euskal kulturarentzat bereziki, aro latza etorri zen. Gerraondo bildurgarri hartan, Basarri, batez ere Uztapiderekin batera, Euskal Herriko plazak bertsolaritzarentzat berkonkistatzen hasi zen. Eta bai lortu ere, Gipuzkoa mailan batez ere.

Gerraondo luzearen ondoren, berriz txapelketak abiatu zirenean, Basarrik Euskal Herriko txapela jantzi zuen 1960an. Handik bi urtera, 1962an, Uztapidek irabazi zuen eta Basarrik gehi-ago ez zuen txapelketarik jokatu. Hala ere 1968an hamasei bertsolariren arteko sariketa bat antolatu zen eta Basarrik irabazi zuen. Finaleko zortzirak ordena honetan geratu ziren: Basarri, Xalbador, Lasarte, Uztapide, Lopategi, Mattin, Mitxelena eta Arozamena. Artean Basarri plazetatik ere erretiratu samarra zen. Bertso jarriekin hainbat liburu utzi digu: “Basarriren bertso-sorta”, “Kantari nator”, “Laugarren txinpartak”, “Sortu zaizkidanak” eta abar.

Basarrik bertsolaritzan nolako garrantzia izan duen esaterik ez dago. Horietan handienetakoa bertsolaritzari arlote kutsua kendu eta duintasuna eman ziola. Bertsolaritza sagardotegi eta taberna giro zakarretik jaso egin zuen eta horretan jakinez gainera saiatu zen. Aurretik ere izan dira noski bertsolari handiak eta artista finak, baina ez agian hainbeste plaza giroan, edo behintzat tradizio nagusia ez zen hori. Basarrik ez zuen bertsoa sagardotegitik eta tabernatik “atera”, detraktoreek salatzen diotenez, hango maila “jaso” baizik, zeren Euskal Herriko plazak eta taberna zokoak kantuz korritu dituenik izan bada, bera izan da bat.



Gogoan daukat, oso gaztea nintzela, (hamasei-hamazazpi urte izango nituen, beraz, 1958 inguruan) gure aitak bertso paper izengabe bat ekarri zuela nondibait, Gernikako bonbaketaz.

Garai hartan bertso haiek izen eta guzti ateratzea fusilatua izateko motiboa izan zitekeen. Bertso haiek, Gernikatik hain hurbil bizi izanik eta bonbaketa hain etxeko nuela, zirrara egin zidaten eta laster ikasi nituen buruz. Gure aitak, etxe inguruan zebilenean, paper hura aldean erabiliko zuen beti eta behin galdu. Gure etxean deskalabrua izan zen hura. Aitak hain basotan galdu zuen errezeloa zeukan eta han jardun ginen arratsalde osoan gora eta behera paper zorionekoaren bila. Ez genuen aurkitu. Baina gure aitak ez zuen etsi eta ez dakit zenbat egunetara, lortu zuen aurkitzea. Papera, euriak beratua eta tintak korritua, guztiz lorrindurik zegoen. Ez zegoen irakurtzerik eta han galduko zen etxean betiko. Pozik hartuko nuke eskuetan paper haren kide bat. Bertso haietako batek zioen:

Ikusi zuten neurri gabeko  
pekatua zeukatela  
ikusi zuten hainbat kristau on  
odolustu zituztela.  
Ikusi zuten mundua kontra  
jaikiko zitzaietela  
eta orduan zabaldu zuten  
gorriak erre zutela.

Geroztik oso urte askotara jakin nuen niretzat hain garrantzitsua izan zen bertso-paper haren egilea Basarri izan zela. Neri ez zait Basarriekin harreman handirik izateko erarik egokitu, baina behin, Irungo jai batzutan, elkarte bateko bazkarian ginen Lopategi eta biok. Basarri ere, ez dakit zer zela bide, bazkaltzera azaldu zen. Hark ez zuen bertsorik gurekin kantatuko, baina norbaitek bazkal ondoan zerbait kantatzera zirikatatu zuen eta Basarrik berehala erantzun zion. Lehen bi puntuak ez dauzkat gogoan, baina azken biak hauexek izan ziren:

Oraintxe ere honek haundia egin du  
gazteai lana kendu, zaharrari agindu.

Gero, bere ohizko deklamazio errimatuan, egundoko gozaldia eman zigun orduerdi batez.

## UZTAPIDE (1909-1983)

Manuel Olaizola “Uztapide”-z zer esan? Honekin harreman handi samarra izan nuen eta gauza asko esan nezake, baina luze-egi lihoake. Hiru Euskal Herriko txapel jarraian jantzi zituen, 1962, 1965 eta 1967. urteetan. Basarriren uztarkiderik behinena izanik, hartaz esandako gauza asko esan daiteke Uztapidez ere, baina hau oso ezberdina zen izaeraz eta estiloz. Uztapide bezain bertsolari herriak maitaturik nekez izango zen mende honetan. Inori ez diot hartaz ezer dudazko hitzik entzun, bai bertsolari gisa, bai gizon gisa. Hura ezagutu zuten bertsolari eta bertsozale guztiek gozatu egiten dute Uztapideren onak kontatzen. Nik ere ezagutu nuen eta inpresio maitagarri bera eragin zidan.

Uztapide bat-batean nabarmendu zen. Bertso jarri gehienak, “Sasoia joan da gero” liburuan, halaxe egin zituen, sasoi joanda eta gaixo samar, plazako azkartasun hura galdua gero. Baina horra non, bertsotan harritu ondoren, prosan txunditzen gaituen. “Lengo egunak gogoan” izeneko liburua garai eta biziera luze baten erretratu izugarria da, ahozko hizkeraren estilorik dotorenean idatzia. Liburu honek zirrara egin zidan.

Uztapideren ateraldiak eta kontakizunak ehundaka dira. Bat kontatuko dut, Lasarteri entzuna. Auzo batean jaiak ziren eta gero bazkaria. Han ziren Uztapide eta Lasarte. Mahaiburuan eserita, han sartzen da atetik bazter guztietan traba egiten duen horietako bat. Zuzen dator bertsolariengana, segurrenik euren inguruan eseri nahian, bera ere sasi-bertsolaria izaki. Eta hasten da, eskua emanez: “Hemen bi Manuel haundi. Bata Manuel eta beste ere Manuel” eta abar. Pixka bat hizketan utzi ondoren, Uza-

pidek esaten dio: “Hara! Eseri zaitetz beste punta hartan, hala ere nahiko gertu egongo zera-ta”.

Beste auzo jai batzuetan, lau bertsolari ziren eta bazkal ondoan kantatzea lege. Garai hartan bazen Casimiro Morcillo bat, Bilboko gotzain izana, gero Iruñekoa eta azkenik Madrilgo artzapezpiku. Franco bera baino frankistago eta diktadoreago zen. Hilzori luzean zegoen. Egunkariak egunero zekarten zerbait, azkenetan zegoela, hiltzear zegoela, baina ez zen hiltzen. Tarte horretantxe zen aipatu bazkaria. Bertsolari batek “Morcillo-morcilla” hitz jokoaz baliaturik, Madrilen bazela nahiko odolki edo horrelako zerbait esan zuen. Hurrengoa ez zen Uztapideren txanda, baina tokatzen zitzaionari mikrofonoa kendu eta “utzi hau neri” esanik, bertso hau bota zuen:

Orain esango dizut  
xuabe xuabe  
eta jarriko zaitut  
jakinaren jabe.  
Ixil ixilik egon  
bazinake hobe  
odolkirik ez dago  
txerria hil gabe.

## HURRENGO BELAUNALDIA

Lan honetan ez dut biziaren historiari kontatuko, Basarriren salbuespenaz beste. Hurrengo belaunaldian batzuk hilak dira - Mitxelena, Lazkao Txiki...-, baina gehienak bizi dira eta batzuk oraindik kantuan eta sasoiko gainera: Lasarte, Lexoti, Joxe Liza-so, Agirre, Egileor, Etxeberria, Garmendia, Lazkano eta abar eta abar. Hauek guztiak oraindik historia bizia dira eta liburuxka honen esparrutik at utziko ditut.

# BIZKAIA

Bizkaiari dagokion atala neuk idatzia dudan eta laster argitaratuko den *Bizkaiko bertsogintza II Izendunak* deritzon liburua-  
ren laburpentxo bat izango da. Bizkaian plazako bertsolaritza  
mende honetararte ez da hainbeste indartu. Bertsogintza, ostera,  
oso zaharra eta uste baino ugariagoa izan da. Bizkaierazko idazle  
kultoez -Mogeldarrek, Eusebio Azkuek, Kirikiñok, Etxeitak eta  
gisakoek- bertsogintzara joera handia eduki dute.

## I

### ANONIMOAK

Bizkaiko herri tradizioan bertso gintza nagusia koplaritza izan da. Eta hemen erromeri koplak edo dantzarakoak batez ere. Eske koplak, Santa Agedak eta abar gutxi-asko Euskal Herri osoan ohitu badira ere, dantza koplen tradizioa Bizkaiko espezifikoia izan dela esan daiteke, gaur jenero hau beste lurraldeetara zabaldurik egon arren. Bi ritmo dira nagusi, bi/bikoa eta hiru/laukoa, arin-arina eta fandangoa esaten zaiena. Ritmo hauen parte berdina kantuz egitean, koplak txikiak eta koplak handiak esan gentzakeenak sortzen dira. Hona bi/biko koplak txiki batzuk:

Arrabako landea  
balego Gorbeien  
hantxe egingo geunke  
zirikin zakien.

Bedarrik onena da  
soloan garie  
andrarik ederrena  
Birjina Marie.

Astotxo bat baneuko  
buzten zuriegaz  
Ermure joateko  
gona gorriegaz.

Ai mutil hankaluze  
txotxo armario  
gantzontzilo borlea  
bernatik dario.

Oh neska farandona  
akerran bekoki  
zazpi arto zati ta  
babalapiko bi.

Eguzkie joan da  
bere amagana  
bihar etorriko da  
denpora ona bada.



Ederrak bi balio  
onak hiru ta lau  
galanta izateak  
asko balio dau.

Alperra beti dago  
geuze bat pentsetan  
behar eiten dauena  
ez dala kantsetan.

Kopla luzeak puntu bikoak eta hirukoak izan daitezke.  
Hona bietariko batzuk:

Urkiolako denderuari  
laroigeigarren urtean  
zaldar batek urten deutso  
orkatileko zanean.

San Antonio, San Antonio  
txarrie geixo danean  
San Antonio ez da esaten  
urdeie datorrenean.

Aite joan da Bituriera  
ama lepoan hartute  
aite etorri da Biturietik  
ama bidean galdute.

Biturietik honantza dago  
legoa batez Gamarra  
kakarraldoak bran-bran eginde  
hantxe itxi dot senarra.

Baltza nazela diñeuste  
ai niri ez deust ardure  
ardaoa baltza da baia  
ai danak edaten deure.

Lezamako neskatila  
neskatila baltzerana  
arpeian ezagun dozu  
Lezamatarra zarana.

-----  
Dingili dango Marine  
beti honela bagine  
beti honela izateko  
burue daukek arine.

Kalien nago kalien  
harri hotzaren ganien  
atie nok edei ez da  
gabak emon daidanien.

Errekan dago harrie  
haren ganean txorie  
neskatxa kolore gorrie  
mutilen engainagarrie.

GORBEI  
Gorbei altuen edurre  
bota surtera egurre  
alaba galanten amak  
mutil zantarren bildurre.

Begire nago begire  
goiko kamino barrire  
noz etorriko ete dan  
neure laztana herrire.

(Kopla guztiok neuk egindako Bizkaiko Bertsogintza I Izengabeak liburu-  
ruko orrialde ezberdinetatik hautatuak dira).

Esan beharrik ez dago, koplak hauek kantatzean eta dantzatzean, zatiak halako ordena batean errepikatzen direla, rotazio etengabea. Hori gabe koplari grazia kentzen zaio eta areago testu gehiago sartzeko aprobetxatzen bada, errepikak alperrik direlakoan. Aspaldion koplagingtzak askotan jasan duen tentazioa da hori, bertsolarien pentsakeratik datorrena.

Gehienez, koplak sortek ez dute argumenturik osatzen. Bakoitza harrikada solte bat bezala da, denen artean dantzaren eta plazakako elementu naturalen batasuna badago ere. Koplagingtza Bizkaian aipu aparta merezi dute Marijeseek edo gabon koplek.

Hauek, jakina, argumentua daukate, erromantze eta baladek ere badaukaten lez. Azken biok Euskal Herri osoko tradizio dira.

Bertsogintza anonimoan bi aipu bakarrik. Bata 1688ko sorta luze bat. Hogeita hemezortzi bertso dauzka eta gaia garai-ko gora-behera politikoa da. Hain zaharra izanik, alde askotatik oso sorta baliotsua da. Honela hasten da:

Altibezea zeugaiti  
zenbat kalte munduari!  
Besa berak nola jakan  
lehen da gero etorri.  
Itaun bekio ezpabere  
egun Gipuzkoari,  
esango dau, zerren baki.

(Bizkaiko Bertsogintza I Izengabeak. Xabier Amuriza. 425. or.)

Bestea Bilboko Santiago elizan urtero Gabonetan, Jesusen jaiotzako elizkizunean, bertsoak kantatzeko garatu zen ohitura. Badirudi sorta askoren egilea Bizenta Mogel izan zela. Bertso hauek batzutan kutsu politiko handikoak ziren. Hona hemen 1794. urteko hamabikotik batzuk:

1)  
Urte guztietako  
Gabongo legia  
da soinu eder baten  
kantik imintia.  
Etxako ukatuko  
sari hau Jesusi  
jaio jakun ezkeru  
Belenen gugaiti.

3)  
Arerio honen kontra  
nahi bogu irabazi  
bitoria handi bat  
jarraitu Jesusi.  
Arkituko ditugu  
armak aska baten  
fedeko farolagaz  
boguz bilatuten.

4)  
Jesus etorri orduko  
lurra dago ixilik  
gerrako arma guztiak  
albora itxirik.  
Bakezko erregia  
jaku izentetan  
Judiako lehoia  
egun barrietan.

(Aurreko bera, 353. or.)

Nik aurkitu dudan zaharrena sorta hauxe izan da, baina lehen bertsoak “urte guztietako Gabongo legia” dio. Horrek esan nahi du urte hartan ere aspalditik zetorren legea zela. Nire eskuetatik iragan den oraintsukoena 1832koa da. Hau baino geroago ere izango zirela eta 1794 baino lehenago ere bazirela jorik, ia mende oso bateko ohitura dago hemen. Ez dira noski uste guztietako paperak aurkitu, lantzean zoko batean bat edo beste agertuz joan daiteke baina. Bertso hauek, Bizkaiko tradizio nagusiarren arabera, bi puntu batera eta bi bestera errimaturik daude. Bizkaian estrofa honi “zortzikoa” esan zaio beste gabe eta horrela errimatzea lege zen.

## II

### IZENAK

#### JUAN BAUTISTA ALZOLA

Juan Bautista Alzola dugu bizkaierazko -baita hegoaldeko ere- testurik zaharrenetarikoa utzi izanaren ohorea daukana. 1636an “Phelipe Hespañako” izeneko sorta luzea dedikatu zion Domingo Lopez de Egiari. Hona hasiera:

Phelipe Hespañako done handia  
eskubetu dozu mundu guztia.  
Alegradu bidi kristiau herria  
libradu dalako Ondarribaia.

Hogei mila gizon Frantzia herriko  
egozan aldi baten su emaiteko.  
Harako Bizkaitar Domingo Hegiko  
izan da bakarrik irabazteko.

Mende honetan beste izen batzuk Rafael Mikoleta (1685), Martin Iturbe (1653) eta Migel Basterretxea (1685) ditugu. Honek, Eibarko apaiz bikarioaren gona kontu bat koplazteagatik, gorriak ikusi zituen, epaitua eta nekez askatua izateraino.

## AGUSTIN BASTERRETxea (1700-1764)

Lekeitiar jesuita honek, beste zenbait idazkiz gainera, "Jesuchristo gure Jaunaren Pasinoa euscarazco versoetan" idatzi zuen. Hirurogei bertso dira eta izugarritzko zabalkundea izan zuten, gipuzkerara ere itzuliak izan baitziren. Hegoaldean behintzat eliza guztietan kantatu zirela esan daiteke eta gaur arte etorri dira. Hona hasierako bertsoa:

Jesukristori kendu ezker  
pekatuagaz bizia  
baldin ez badot negar egiten  
harrizkua dot bihotza.  
Guztiok lagun  
kantadu daigun  
bere penazko heriotza.

## MARIA ANTONIA SOLOAGA GERENAGOENA (1750)

Hauxe dugu segurrenik, Milia Lasturkoaz hurrengo, bizkaieraz bertsoak jarri dituen emakume ezagun zaharrena. 1750 inguruan jarritako bertso sorta bat dator J. R. Iturriza historilariaren liburu argitaratu gabeko batean. Emakume honen izenaz beste lorratzik ez dago, oraingoz behintzat. Hona lehen bi bertsoak:

1)  
Adiskide bat daukat  
gutziz amantia  
da neure bihotzian  
gutziz noblia.  
Hemen nago bakarrik  
asko penadurik  
orain ausentadu naz  
amantiaganik.

2)  
Kontu ataraten dot  
kasu honetarik  
neure heriotzia  
konsideraturik  
arimia ta gorputza  
hain maitiak izanik  
zelan apartauko dira  
bada alkarreganik.



Felipe Arrese-Beitia



Gernikar abade honen jaiotza-heriotza datak ez dira segurak, Jose Antonio Arana Martijak gutxi gora-beherakotzat emanak baizik. Autore zaharra da, beraz, eta bere obrak, balio literarioaz gainera, balio linguistiko handia dauka. Berau da “zortziko” izenari buruz daukagun konstantziarik zaharrena. Honentzat ez zegoen zortziko handirik ez txikirik, “zortzikoa” soilik baizik, eta hori gaurko zortziko txikia bezala etorri da Bizkaiko tradizioan, baina bi puntu batera eta bi bestera errimatuz.

Hona “Ama maitegarriari bere jaiotzan” izeneko sortaren lehen biak:

1)  
Jaio zinean  
zorionean  
zeruetako lorea  
zeuxek isurten  
dozu Adanen  
umeentzat amorea.

2)  
Zeure argiak  
geure begiak  
gutziz alegretan ditu  
zerureanik  
ondo laztanik  
munduak hartuten zaitu.

Ohartzekoa da zer neurri eta errima mota darabilen:  
1-2, 3-6, 4-5.

Beste pieza batzutan Gandarak askoz gauza zailagoak eta lortuak egiten ditu neurri-errimetan. Ezagutzen diren sortak, aurrekoaz gainera, hauek dira: “Ama maitegarriari, zortziko”, “Ardaoaren ganian” eta hiru “Gernikako Gabon kanta”, hamar, hamabi eta hamabost bertsoak. Gabon kanta hauen izateak eta Bilboko Santiagoko geroagoko gabon kanta ohiturak zerikusia eduki dezakete.

## ANTONIO ABOITIZ (1751-1824)

Lekeitioko abade honen bizitzako xehetasun askorik ez da ezagutzen. Guganaino heldu diren sorta guztiak umorezkoak dira eta harrigarria da, bera abadea izanik, bertso erlijiosorik baxterez egitea. Badirudi bertso askoren egile izan zela, baina zorritzarrez gehienak galdu egin dira. Hain bertso bitxiak, gazdunak eta ondo eginak osatzen zituen lekeitiar honek mereziko luke ikerketa bat, nor egin balego. Bere sortarik ospetsuena “Txanton Pipirri” da, Orixek ere bere “Euskaldunak” poeman sartu zuena. Hona hemen hamairuko sortatik batzuk:

1)

Txanton Pipirri hemen dago  
limosna on bat balego.

Kantau bihar dot  
baldin ahal badot  
nik gaur daukadan gosia  
errukitzeko jentia.

9)

Ni jaio nintzan orduan  
aztua etxian eguan.

Zuzen begira  
nire arpegira  
eta esan eutsan amari:  
entzun egizuz berba bi.

3)

Ez da errotarri hain gogorrik  
nire haginak lakorik  
bada bakotxak  
zorrotz nahi motzak  
ogi bat hurunduten dau  
hiru bigunak edo lau.

11)

Igarlia zan aztua  
baina amak eukan modua.  
Emon titia  
eukan guztia  
ta gero esnia ugari  
auzoko behien erroti.

Aboitizen beste bertso sortak: “Peru Dubako”, “Belaskilloren kantia”, “Zeugana nator, Pedro”, “Tortolatxu bat basuan”, “Matxango” eta “Trakamailgo erregina”.

## MOGELDARRAK

“Peru Abarka” ospetsuaren egile Joan Antonio Mogelek (1745-1804) hainbat bertso idatzi zuen, liburu horretan agertzen direnez gainera. Oso maite zuen ipuin edo alegi gisako zortziko sortak eta binako kontakizunak egitea. Bere iloba Joan Jose Mogelek (1781-1849) ere zaletasun handia zeukan bertso gintzarako eta ezagutzen ditugun apurretan oso sorta luzeak egiten zituen. Baina batez ere honen arreba Bizenta Antonia Mogelek (1782-1854) jarri zuela dirudi bertso rik gehien, Bilboko Santiagoko Gabon kanta askoren egile segurrenik berau delarik.

## JUAN KRUZ ETA ANTONIO DE LA FUENTE ANAIK

Durangoko *plateruak* edo *zidarginak* izenez datozkigun anai hauek bikote bitxia osatzen dute Bizkaiko bertso gintzan. Aita Burgoskoa eta ama Gasteizkoa zutela, jatorriz ia guztiz erdaldu-nak izanik, euskaraz egin ziren ospetsu. Bertso gile ez ezik, dantzari, musikari eta umorezale handi izan ziren.

Izenak dionez, lanbidetzat zilargintza zeukaten, aita eta anai zaharrarekin batera. Antonio 1758 inguruan jaio zen eta 1834ko uztailaren hiruan hil, hirurogeita hamasei urtekin.

Juan Kruz 1760an jaio eta 1831ko otsailaren hamabostean hil zen, hirurogeita hamar urte beteak zituela.

Bi anaiak jaio bezala ezkongai hil ziren. Juan Kruz zen, antza, bertso gina eta Antonio musika jartzailea. Bazuten zerbait maitagarria zilarginok, inguruan hain entzute handia eta maitea uzteko. Argi dago zilarginok ez zutela euskara ondoegi menperatzen, baina zekitena batere lotsa gabe egiteko nortasuna zeukaten. Hona hemen euren “Gaboneko kantak” sorta ospetsua:

1)

Ardizain deboto bi  
amodio handiaz  
Jesusengana duaz  
janari guztiaz.  
Batak darua esnia  
bestiak ezta  
haurra konsolatzeko  
bihar dan guztia.

2)

Hartuik pitxar bete ardo  
da guazen etxera  
Gabon gaba zelebratzeko  
aitaren da amaren onduan.  
Ikusikok aita barreka  
ama bere txit kontentuz  
baita neuk bere zelango traguak  
lehenengo esanda Jesus  
bisigu errien hazurak  
ondo txupauko deguz.

3)

Eragiok, mutil  
eragiok, mutil  
sirrin sarran  
sirrin sarran  
aurreko tanbolinori  
gaztainak egin artian  
gaztainak egin artian  
sipli sapla  
sipli sapla  
plis plast  
plis plast pun!  
Gabon gaba zelebratu dezagun.

(Antton Mari Aldekoa-Otaloraren **Durangoko Plateruak** izeneko liburua,  
Gerediaga Elkarateak 1984an argitaratua).

Nork esan behar zuen gure “Hator, hator” kanta famatua  
duela bi mendeko euskaldun berri bati zor genionik?

## PANTXILLON

Norbaiten izenordea dirudien *Pantxillon* honen daturik ez dut aurkitu, Durangokoa zela besterik, kanta paper batek dionez. Joan zen mendearen erdi aldekoa dirudi, jarri zituen bertsoengatik eta bertso paperek dakarten datatik. Datuak baino penagarrigo da bertso gehiago ez aurkitzea, ezagutzen ditugun bi sortak jarri zituenak hainbat gauza polit gehiago izango baitzuen. *Bizkaiko bazter baten* izeneko kondaira ondu zuena norbait baino gehiago zen. Hona hemezortzi bertsoetako lehen bostak:

1)

Bizkaiko bazter baten  
Anboto partian  
gizon bi bizi ziran  
baserri batian.  
Goizian sartzen ziran  
tabernako atian  
ez eben alde egiten  
bihamon artian.

2)

Gizon biok zirian  
Peru eta Anton  
euren aldi guztian  
biziak Anboton.  
Sarri euki ezker  
edaria bonbon  
atsuai esateutsen  
banoa ta hor konpon.

3)

Bakijen hotza zana  
etxeko artua  
hagaitik armatzeben  
behiakin tratua.  
Tabernara ezker  
seguru katua  
pozik eskapetako  
bazan zapatua.

4)

Etxian euki arren  
sarri morokila  
honek ipinten jeuskuk  
estomangu hila.  
Guazen tabernara  
hobiaren bila  
atsua umiak  
aforra dedila.

5)

Artua zopan eta  
txoletian ura  
etxuat hatx onduan  
holan bizi gura.  
Lebatz eta ternera  
lukainka musturra  
honekaz egoten dok  
tabernan gustura.

Gure etxean eta Bizkaiko etxe bertsozale gehienetan kanta-  
tuak izan dira bertso hauek eta ez da harritzekoa, hain narrazio  
dotorea eta ironikoa baita. Pantxillonon beste bertso sorta oso po-  
litikoa da, Afrikako gerrari buruz.

## **EUSEBIO MARIA AZKUE (1813-1873)**

Resurrección Maria Azkueren aita izan zen Eusebio itsasgi-  
zona izan zen eta gero nautika-irakasle Bermeo, Mundaka eta Le-  
keiton. Bolada bat izan zuen, Jose Antonio Uriarteren eraginez  
batik bat, olerki eta bertso asko idatzi zuena. Gizon kultoa zen  
eta halakoxe bertsogintza egin zuen, poesiatik eta herri bertso-  
tik erdibidean. Hemeretzigarren mendeko bizkaierazko autorerik  
interesgarrienetakoa da duda gabe. Honen lana bere semeak ar-  
gitaratu zuen “Parnasorako bidean” izenez. 1990ean Labayru  
Ikastegiko Asier Astigarragak eta K. Josu Bijuescak beste bildu-  
ma handi bat argitaratu zuten, “Euskarazko Vertsoak” izenez.  
Hona hemen “Euskaldun bat Veracruzen” izeneko hogeita lauko  
sortatik lehen laurak:



1)

Hemen nago ni tristia  
ama alargunen semia  
kartzela baten  
penak esaten  
daukadazanak ugari  
neure pentsamentuari.

2)

Neure lenengoko argia  
zan euskaldun eguzkia.  
Ama maitia  
zan emaztia  
gizon bihargin ta on batena  
herrian zan ederrena.

3)

Ume nintzaneke egunak  
danak alkarren lagunak  
juan zirian  
euren bidian  
beti betiko lekura  
ez etorteko mundura.

4)

Hamar urte nituzala  
jakin zan errege hil zala.  
Ez nekian nik  
hasiko zanik  
hagaitik gerran jentia  
ta hain gitxi zer zan gerria.

## FELIPE ARRESE BEITIA (1841-1906)

Otxandiotar ospetsu hau lanbidez eskultorea, *santugina* zen. Bere bizitza eliz, etxe eta ikastetxeetan iragan zuen, eskulturan eta hargintzan. Donostiko Institutu Probintzialeko gizon ospetsuen irudiak, adibidez, berak eginak dira. Bertsolari eta poeta gisa ugaria izan zen. Hainbat sari irabazi zuen eta ehundaka gairi buruz bertsoak jarri zituen, jenero ezberdinetan, orduko aldizkari gehienetan parte hartuz.

Arrese Beitiaren estiloa herri hizkuntzaren eta garaiko hizkuntza kultoaren konbinapena da. Maitasun profanoa izan ezik, herriaren musak kantatzen duen guztia kantatu zuen. Badirudi maitasun hori ez zuela askorik praktikatu. Hona "Arbola bat zan" sortako lehen-hirugarrenak:

1)

Arbola bat zan Paradisuan  
Jaunak apropos jarria  
mundu guztiak hartu egion  
lotsa ta itzal handia.  
Bere azpian bizitea zan  
aita Adanen gloria  
handik kanpora zer topau eban  
ez bada negargarria!

3)

Arbola bat zan Bizkaian bere  
neure anaia laztanak  
zeinen azpian pozez beterik  
egoten ziran asabak.  
Kerizpe zabal hartan jarririk  
eginda euren batzarrak  
buztarri baga nasai ta libre  
bizi ziran Bizkaitarrak.

## BONIFAZIO LATXA AGIRRE

1898tik 1900 ingurura arte, *Euskalduna* astekarian hainbat bertso sorta argitaratu zen, honela sinaturik: *Bonifazio Lacha eta Agirre*. Eta aitortu behar dut ezuste itzela hartu nuela. Benetan interesgarria motibo askogatik. Alde batetik, kontuan izan oraindik joan zen mendean gabiltzala. Eta non eta bizkaieraz honelako bertsoak, Bizkaian tradiziozirik apenas zegoela sinestuta geundenean. Egundoko graziaz eta burlaizeaz gainera, teknikaz ere arretagarri da bertso jartzaile hau. Neurria oso ondo eramanik, erriman da batez ere harrigarrien, bizkaieraz eta joan zen mendean izateko. Beste euskalkietako bertsolaritza ezagutuko zuen agian, baina igartzen zaio bizkaieraren golkotik ateratzen duela jokorik gehiena. Hona ezkontza txar baten ondorenak kontatzen diren hamalau sortako lehen biak:

1)

Gaurko mutil banakok  
galdu ez daitezan  
ezkontza zelan egin  
nik behar dot esan.  
Bizi gura ez dabenak  
neu legez tristezan  
sinistu dagiala  
neure andrea zer zan.

2)

Neskatilea zala  
nire andra Jazinta  
agertuten zan beti  
ederto jantzita.  
Garritik eukazala  
beherantza jausita  
larrosa koloreko  
lau sedazko zinta.

## JOSEBA IMANOL ETXEITA

Mundakar idazle eta nabigatzailea (1842-1915). Itsasoan kargu handiak eduki ondoren, Manilako alkate izateraino iritsi zen. Mundakara itzulirik, itsas astronomia, musika eta euskara lantzen gogoz ekin zion, hainbat liburu idatziz. Han-hemen idatzitako bertsoak *Au, ori ta bestia* liburuan batu zituen. Hona "Itxasua" izeneko sortaren lehenengoa:

Ludi honetan inguraturik  
sortaldetik sartaldera  
aurkituten da osin handi bat  
O! Zein ederra da bera!  
Zabal ta sakon toki askotan  
azal ta bedar ostera  
noizbait dakusku gora-beheraka  
noizbait ixpilu antzera.

## EUSTAKIO LARRABEITI "EULEA" (1848-1936)

Loiutik Laukizera ezkondu zen eta garai hartarako hain bizi luzea harrapatu zuen Eustakio lanbidez ehulea zen eta hortik zertorkion mundu guztiak hala ezagutzen zuen izenordea: Eustakio Eulé, Eulea, Eulie... Inguruan entzute handia lortu zuen eta herritarren oroimenean gizon bromosoa eta zelebrea izan arren, zenbait ekitaldi politikotan ere agertzen da. Bizkai aldean fama-  
tuak dira haren "Zortzi nobio" eta "Frantzisko Orbegozoko".

Gauzak hain natural eta xalo eta hain tonu aldi berean hurbil eta solemnean kontatzen dira, ezen azkenerako zirrarratu egiten zaitu. Ez da inondik ere ziri bertsozko estiloa, bizkaierazko baladen eta erromantzeen airekoa baizik. Hona zortzi nobiodun neskaren lehen bi bertsoak:

1)

Neska polit bat jagok  
Laukizko herrien  
zortzi nobio jozak  
urte bi t`erdien.  
Zortzigarrena jaukok  
inoizko larrien  
ez ibili baziren  
fineza garbien.

2)

Lehenengo nobioa  
zala kuberue  
mutil galanta baina  
bekoki pardue.  
Haregaz hartu baneu  
neure estadue  
orain egongo nintzen  
ondo ezkondu.

## 1900 INGURUKO ALDIZKARIAK

Joan zen mendearen azkenetatik mende honen lehen urteetan aurrera, euskal aldizkariaren ugaltza handia izan zen: *Aberri*, *Bizkaitarra*, *Ekin*, *Euskalduna*, *Ibaizabal*... gehi *Euzkadi* egunkaria. Hauetan, bakoitzak bere kabuz bidaliak, edo aldizkariak antolaturiko lehiaketei erantzunez, bertso asko eta asko ageri da, eta hainbesteren artean oso lan baliotsuak ere bai. Horietako bat da gorago aipatu Bonifazio Latxaren kasua. Felipe Arrese-Beitia eta Kepa Enbeita ere kolaboratzaile ugariak dira aldizkariotan. Baina izen ezagunez gainera, ezizen asko ageri da eta batzuek benetan gauza politak lortzen dituzte. Beste batzuk, idazle ospetsuak izan arren, ez dira bertsogiletzat ezagun izan. Halakoa da Kirikiño (1866-1929) mañariarraren kasua, bertso sorta politak zabaldu zituen. Sasoi honetako bertso paperen bat izango da Meltxior Lastra izeneko baten "Otxandioko astotxo bati" hoguei bertsoko sorta xelebrea, Euskaltzaindiaren ardurapean 1960an "Euskal Kantak" zeritzon liburuxkan geroago datorrena. Hona hirugarren eta laugarren bertsoak:

3)

Harotza daukat ofizioa  
 beste askoren antzera  
 aiskide batek dei egin eustan  
 arbola batzuk lantzera.  
 Asto bat eukan nire asmorako  
 gazte, polit da ederra  
 hirurogeita hamar erlean  
 ekarri neban etxera.

4)

Juan Anton lehengo asto jaubiak  
 eukan keja bat bakarra  
 etxe ondoko solora sartzen  
 jakola asto txikarra.  
 Desgrazia bat nik izan neban  
 egun hatantxe zakarra  
 uste bagarik gertatu jatan  
 astotxo honen biharra.

Eta jarraitzen du kontatzen nola, hanka haizkoraz ebakita, astotxo haren premian aurkitu zen etxeratzeko, nola erosi zuen eta gero nolako asto modua atera zitzaion.


### KEPA ENBEITA (1878-1942) ETA BALENDIN ENBEITA (1906-1986)

“Urretxindorra” goitizenez ezagutzen den Muxikako Usparitxa baserriko Kepa Enbeitak Bizkaiko bertsolaritzan mugarri bat markatzen du. Ez dator hutsetik. Aita ere, “Txotxojeuri” zeritzon gizon xelebrea, bertsolari polita izana zen. Eta ikusi dugunez, Bizkaian bertso tradizioa aurretik ere ez da izan uste bezain urria. Baina egia da bertsolaritza Bizkaian indarrez, ospez eta duintasunez plazaratu zuen lehen figura historikoa bera izan zela. Bi aro izan zituen. Gaztaroan bertsolaritza tradizionalari ekin zion eta hortxe nabarmendu zen ibili zen plazetan. Getxon lehiaketa handi bat irabazi zuen hogeita lau urtekin, garaiko bertsolaririk onenak -Txirrita, Pello Errota, Frantses-Txikia eta Aizarna- tartean zirela. Inork ez zuen uste Bizkaian giputzekin lehiatzeko moduko bertsolaririk egon zitekeenik.

Bigarren aroan Kepa Enbeita garbizaletu eta kultistatu egin zen, Sabino Aranaren lagun izana zen Arrospide medikuaren eraginez. Aurrerantzean Urretxindorrak aberriari eta euskarari eskainiko zion bere bertsogintzarik gehiena, garai hartako politi-



Kepa Enbeita "Urretxindorra"



Balendin Enbeita



zazio beroari eta euskararen aranismoari jarrai. Mitin eta ekitaldi abertzale handietan, plazetan nahiz antzokietan, Kepa Enbeitaren presentzia nahitaezko bilakatu zen, Jose Antonio Agirre, Lauaxeta eta abarren ondoan. Bigarren aro hau izan ez balitz, ez zen segurrenik hain figura mitiko bihurtuko. Horrek bertso-gintza zabarkeritik jasoarazten zuen eta ospe handia ekarri zion, hain zabaldurik ez zegoen Bizkaian.

Baina bertsoarentzat berarentzat beharbada hobe izango zen lehen aroan geratu balitz, edo aro huraxe garatu balu. Horrela lortuko ote zuen bigarren aroak ekarri zion ospe eta indarririk? Ez dago jakiterik. Kepa Enbeitaren lehen aroaren ezaugarritzat "Behi zaharraren bertsoak" aipatuko ditut, makina bat etxetan kantatu zirenak. Neuk ere gustora ikasi nituen harrapatuz batera. Hiru anaien arteko elkarrizketa da: Imanol behia jaisten, Kepa begira eta Santi sukaldean. Hona hamairuko sortatik lau:

1) *Kepa*

Komedi tokia da  
gure okoilua  
behiak adarrak dantzan  
da hik akuilua.  
Bi alditan hor habil  
mutil kankailua  
esnez bete ezinik  
heure katilua.

4) *Imanol*

Musalen baino be  
zaharrago da behia  
trabes iminten jaustak  
gaur neuri begia.  
Askan eukiagaitik  
nahiko janaria  
atzeko ostikua  
dauko dantzaria.

5) *Kepa*

Bi alditan hor habil  
esnia batzien  
bietan katilua  
dok erdi hutsien.  
Hi baino abilaurik  
ez badok heltzien  
dantzan eingo jok horrek  
okoilu ertzien.

6) *Imanol*

Argimutil on barik  
postien onduan  
hator ikusitera  
zer moduz nagan.  
Hurreratu ez banintz  
askoz hobe nuan  
ostikuaz jo naiok  
belaunen buruan.

Hemen agertzen den Kepa Enbeitaren anai Imanol ere ha-  
maika bertso sorta eder jarria da.

Kepa Enbeitaren seme Balendin Enbeita izan zen hurrengo  
erreferentzia nagusia, gerraostean izenari eta bertsoari Bizkaian  
eutsi ziona. Aitaren mailara iritsi ez bazen ere, Balendinen itza-  
letik etorriko zen berpiztea, bai etxean eta bai inguru zabalean.  
Balendinek, gerraoste beranduan berriz hasi zirenean, Bizkaiko  
lehenengo bi txapelketak irabaziko zituen 1958 eta 1959an. Ja-  
rriaian hor etorriko ziren Azpillaga, Mugartegi, Lopategi, Balen-  
dinen semeak eta abar eta abar, baina hauek liburu honetatik at  
geratzen den beste aro bat osatzen dute. Bizkaiko lehen txapel-  
ketetan eta orduko plazetan aipatu gabe ezin utzi Orametxe  
"Taket" eta oraindik bizi diren Iturri, Alberdi eta Pujana. Azken  
hau batez ere bertsoak jartzen nabarmendu da, oso sorta elegan-  
teak eginez.

## ONDARROA-BERRIATUA

Ez nuke Bizkaiko bertsolaritzaren laburpen hau amaitu  
nahi, Ondarroa-Berriatua gunea nabarmendu gabe. Hemen  
mende honen hasieran eta geroago, bertsolari eta batez ere bert-  
so-jartzaileen mugidak indar handia hartu zuen eta maila ere ez  
nolanahikoa. Aipatzekoak dira Tiburtzio Urrosolo eta Jose Ma-  
nuel Imaz joan zen mende azkenean eta geroago Ezkerra, Bront-  
xe eta Burgoa... denetan ugariena Burgoa ageri delarik.

## Iturriak

Liburu hau osatzeko, liburu hauek erabili ditut:

- Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak I Anonimoak. Patri Urkizu. Etor.
- Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak II 1545-1900. Patri Urkizu. Etor.
- Bertsotan 1789-1936. Joanito Dorronsoro. Gipuzkoako ikastolen elkarte.
- Bertsotan II 1936-1980. Joanito Dorronsoro. Gipuzkoako ikastolen elkarte.
- Hiztegi Entziklopedikoa. Elhuyar.
- Bizkaiko bertso-gintza I Izengabeak. Xabier Amuriza. Bizkaiko Bertsozale Elkarte, Bizkaiko AEK, Zenbat Gara kultur elkarte.
- Bizkaiko bertso-gintza II Izendunak. Xabier Amuriza. Laster argitaratuko dena.
- Euskalerriaren Yakintza IV. R. M. Azkue. Espasa-Calpe, S.A. Madrid. 1971.
- Bertsolarismo. Gorka Aulestia. Bizkaiko Foru Aldundia.
- L'Oeuvre poetique de Etchahun. J. Haritschelhar. Euskaltzaindiaren Euskera XIV-XV.
- Etxahun-Iruri khantan. Jakes Larrondo.
- Pedro Mari Otañoren bertsoak. Kuliska Sorta. Itzaropena. 1959.

Euskaldunak. Orixe. Itxaropena, 1950.

Durangoko Plateruak. Antton Mari Aldekoa-Otalora. Gerediaga  
Elkartea. 1984.

Euskal Kantak. Euskaltzaindiaren ardurapean. 1960.

## Inurrik

Liburu hau ezarriko liburu bakoari erabiltzen diot.  
lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertako eta kanak I. Anon  
anoak. Paris. Urtarril. 1900.  
lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertako eta kanak II. 1915-  
1900. Paris. Urtarril. 1900.  
Bertokoan 1789-1900. Jatorri Gortekoan Gortekoan izan  
ten elkarrean.  
Bertokoan II. 1900-1950. Jatorri Gortekoan Gortekoan  
izan den elkarrean.  
Bizkaitiko bertogintza I. Jatorri Gortekoan Gortekoan  
Bertokoan izan den, Bizkaitiko ABE, Xabier Gortekoan Gortekoan  
Gortekoan.  
Bizkaitiko bertogintza II. Jatorri Gortekoan Gortekoan  
Gortekoan den.  
Euskaltzaindiaren Yatorri IV. R. M. Aitor. Egitas. 1971.  
Madrid. 1971.  
Bertokoan Gortekoan Gortekoan Gortekoan Gortekoan  
L'oeuvre poétique de Bertoldo. J. Bertoldo. Euskaltzaindiaren  
dianen Euskara XIV-XV.  
Euskaltzaindiaren bertogintza. Jatorri Gortekoan Gortekoan  
Pedro Mari Gortekoan bertogintza. Kuitas. Jatorri Gortekoan 1979.

## Aurkibidea

<b>IPARRALDEA</b> .....	7
<b>I) ANONIMOAK</b> .....	9
- Urrundu nintzan herritik.....	10
- Bazko eta Salvatore .....	11
- Asto guziak .....	12
- Ni sortzeko denboretan .....	12
- Mendi gainean bi pago .....	14
- Gazte naiz eta lorios .....	15
- Urzo xuri pollit bat .....	16
<b>II) IZENAK</b> .....	19
- Bernart Etxepare .....	19
- Joanes Etxeberri.....	20
- Joan Claveria .....	22
- Salvat Monho.....	23
- Beñat Mardo .....	24
- Balere Artxu-Idiart .....	25
- Martin Larralde “Bordaxuri” .....	26
- Pierre Topet “Etxahun” .....	27
- Jan Batixt Otxalde.....	29
- Jean Baptiste Elizanburu .....	29
- Gratien Adema “Zalduby” .....	30
- Piarres D’Ibarrart.....	32
- Jose Mendiage .....	33

- Etxahun-Iruri .....	33
- Martin Treku "Mattin" .....	34
- Fernando Aire "Xalbador" .....	34
<b>NAFARROA GARAIA .....</b>	<b>39</b>
<b>I) ANONIMOAK.....</b>	<b>43</b>
- Amerikatik .....	43
- Gogoan derabilat .....	44
- Gure etxea lakarrez .....	44
- Gan nintzen baratzeria .....	45
- Goizean goiz tabernara .....	46
- Agure zahar-zahar batek .....	46
- Bertso bida .....	47
- Mendiak bete elurrez .....	47
<b>II) IZENAK .....</b>	<b>49</b>
- Joan Etxamendi "Bordel" .....	49
- Andres Astiz .....	50
- Andres Mitxelena .....	51
- Paulo Yanzi .....	52
- Mikel Arozamena .....	52
- Andres Narbarte "Xalto" .....	54
<b>GIPUZKOA .....</b>	<b>57</b>
- Fernando Amezketarra .....	59
- Xenpelar .....	61
- Xenpelarren ingurukoak .....	63
- Bilintx .....	64
- Iparragirre .....	67
- Udarregi .....	68
- Pedro Mari Otaño .....	69
- Pello Errota .....	70
- Txirrita .....	71



- Fermin Imaz .....	73
- Txirritaren garaikideak .....	74
- Basarri .....	77
- Uztapide .....	79
- Hurrengo belaunaldia .....	80


<b>BIZKAIA .....</b>	<b>81</b>
----------------------	-----------

<b>I) ANONIMOAK.....</b>	<b>85</b>
--------------------------	-----------

<b>II) IZENAK .....</b>	<b>89</b>
-------------------------	-----------

- Juan Bautista Alzola .....	89
- Agustin Basterretxea .....	90
- Maria Antonia Soloaga.....	90
- Sebastian de la Gandara .....	92
- Antonio Aboitiz .....	93
- Mogeldarrak .....	94
- De la Fuente anaiak .....	94
- Pantxillon .....	96
- Eusebio Maria Azkue .....	97
- Felipe Arrese-Beitia .....	98
- Bonifazio Latxa Agirre .....	99
- Joseba Imanol Etxeita .....	100
- Eusebio Larrabeiti "Eulea" .....	100
- 1900 inguruko aldizkariak .....	101
- Kepa Enbeita, Balendin Enbeita .....	102
- Ondarroa-Berriatua .....	105

<b>Iturriak .....</b>	<b>107</b>
-----------------------	------------



## XABIER AMURIZA

Zornotzan jaioa 1941. urtean. Eliz ikasketak Derion egin zituen eta apaiztu ondoren Zamorako espetxe ospetsuko gorabeherei aurre egin behar izan zien, frankismoaren aurkako iharduerak zirela eta.

Bertsolari bikain eta berrizalea izaki, txapela lortu zuen 1979 eta 1982an. Bertsolaritza bultzatu eta itzulpena ere landu du. Zenbait disko eta literatur lan ditu kaleratuak, hauen artean *Hil ala bizi* (1973), *Menditik mundura* (1977), eta *Oromenderrieta* (1987), euskara ikasteko argitaratu duen hainbat materialekin batera.

**egin**

**Biblioteka**